

Kultura

Herri Maite akordeoi taldeak kontzertu berezia eskainiko du, zapatuan, publiko gaztea erakarri guran > 12



Olatu berri bat erabakitzearen alde

Atxondon eta Otxandion herri galdeketak egingo dituzte, domekan, Kataluniako prozesu subiranista tentsio handiko uneak bizitzen ari den honetan. Säul Gordillo Catalunya Radioko zuzendariak auzi honetan hedabide publikoek betetzen duten papera azaldu dio ANBOTOri. > 2-4

Argazkia: Patxi Granado



“Argi dugu, emakumeak garelako izan da borroka hau hain luzea”

Bizkaiko zaharren egoitza kontzertatuetan kasik urte eta erdiko greba deialdiak burutu dituzte ELA sindikatuko zaintzaileek. Azkenean, lortu dute hitzarmena berritzea, eta normaltasunera bueltatu dira. Zaintzailerik

gehienak emakumeak dira, eta, horregatik, genero ikuspegiak bustitako borroka izan da eurena. Emakume borroka izan da. Aurrerantzean, euren baldintzak eta zaharren zaintza-kalitatea hobetu egingo direla uste dute. > 10



Elorrio > 6

Espainian kondena beteta, Arginzoniz Frantzia epaituko dute

Mallabia > 5

Etxea erre zitzaientek herritarren laguntza eskertu dute

Durango > 7

Jon Maia bertsolariak zabalduko du Berbertan hitzaldi zikloa

Durangaldea > 9

Etxebakoek urteko gau denetan izango dute zabalik aterpea

Herririk herri

Atxondon eta Otxandion herri galdeketak egingo dituzte domekan

Gure Esku Dagok Euskal Herriko estatus politikoaren gaineko herri galdeketak egingo ditu

ATXONDO/OTXANDIO J.D. Hautestontziak demokraziaren ispilu direla adierazi gura dute domekan Atxondon eta Otxandion. Herri bietako Gure Esku Dago (GED) elkarteek sustatuta, Euskal Herriko estatus politikoaren gainean galdetuko diete herritarrei. Katalunian ezadostasun askoren iturburu den gaia normaltasunez eta jai-giroan gauzatzea dute helburu.

Herri galdeketen hirugarren olatuak 13 herri bustiko ditu. Otxandio eta Atxondo ez ezik, Andoain, Areatza, Beizama, Berango, Erandio, Elantxobe, Galdakao, Getxo, Mundaka, Ibarrangelu eta Leioako herritarrak ere boza ematera deituta

daude. Guztira, 160.000 lagunek izango dute bere iritzia plazaratzeko aukera.

Otxandion honako hau izango da galdera: *Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?* Atxondon, berriz, honako galdera erabaki dute: *Euskal Herri independente bateko herritarra izan nahi duzu?*

Gure Esku Dagoko kideak buru-belarri lanean dabilta egunotan domekarako dena prest egon dadin. Atxondoko GED-eko Ane Intxaustik azaldu duenez, atez ate informazioa ematen aritu da 12 bat laguneko taldea. "Atxondoko etxe zein baserri denetara joan gara. Galdeketaren harira antolatuta



Euskal Herriko 13 herritan egingo dituzte galdeketak. 160.000 lagunek bozkatzeko aukera izango dute.

tako ekimenetan betiko jendea batzen zela ikusita, atez ate joatea erabaki dugu herritarrenei azalpenak ematera", adierazi du. Eguneko informazioa batzen

duen eskuorria eta bozak utzi dituzte etxeetan. Otxandioko herritarrenek ere eskuorriak eta bozak jaso dituzte euren buzoietan. Egunotan herria askotariko

osagaiekin apaintzen jardun dutela azaldu du Onintze Lopez de Letona GED-eko kideak.

Aurretiazko bozkarako aukera amaituta dago Otxandion.

"Kataluniako panorama politikoa asko aldatu da azken bederatzi urteetan"

Otxandion bizi da Jorja Cirera katalana, eta prozesu bien lekuko edo jarraitzaile da

A5 Markel Onaindia 14 urteaz euskara ikasten hasi, eta Euskal Herriaz maitemindu zen Jorja Cirera Faibella katalana. Badira urte batzuk bertan bizi dela, eta azken zazpitan Otxandio du bizileku. Kazetaria da izatez, baina irakasle ibili da hainbat urtez, eta orain idazteari ekin dio. 'Camins de identitat' liburua argitaratu du. Domekako galdeketan du begi bat, eta

bestea, ezinbestean, Kataluniako prozesuan.

Zelan biziko duzu domekako galdeketa eguna?

Donostian nago erroldatuta, eta ezingo dut botoa eman. Dena dela, ekimenaz informatuta nago, eta domekakoa egun oso berezia izango da hemen. Ea jende asko joaten den bozkaterra. Otxandiar bategaz bizi naiz, eta bera badoa parte hartzera.

Otxandio badago parte hartzera ohituta.

Herri txikia baina bizia da. Jende oso jatorra dago. Jende guztia agurtzen dut, eta lagunak ere egin ditut. Bestalde, udala saiatzen da gauzak herrikoi bihurtzen, herritarrei erabakitzeko gaitasuna eskaintzen.

Zelan ikusten duzu hemengo egoera politikoa?

Jendeak esaten du hemen de-

na geratua dagoela, baina us-te dut poliki-poliki aterako dela aurrera. Katalunian ere jende gutxi hasi zen parte hartzen galdeketetan. Bestalde, hemen arazo garrantzitsu bat dago, presoena.

Katalunian aldaketa bat eman dela igarri duzu?

Azken bederatzi urteetan asko aldatu da Kataluniako panorama politikoa. Izan ere, lehena-



anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko azaroaren 3a
15. urtea - 696. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea
Arrinda. **Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri. **Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta. **Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri. **Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza, Nagore Txintxurreta Isasi eta Alazne Salcedo Artetxe. **Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala. **Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa. **Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

**Galdeketa jai-giroan**

Domekarako euria dago iragarrita. Katalunian ez bezala, oinazturik gabeko zaparradak izango dira, hala ere. Demokrasiaren jaia izatea gura dute eta askotariko ekintzak prestatu dituzte. Atxondon herriko talogileek egindako talo ogitartekoak jateko aukera egongo da domeka arratsaldean, beste ekintza batzuen artean.

Otxandion egun osorako egitaraua prestatu dute. Goizean hamaiketako eta herri kirol erakustaldiak (12:00etan) izango dira. Eguerdian, 13:30ean, ekitaldi nagusia hasiko dute, Andikona plazan. Esangura sinboliko sakona duen tokia da, 1936an hildako asko eragin zituen bonbardaketa latza jazo zelako bertan. Bonbardaketa eta hildakoak alde batetik, eta herri galdeketa eta bozketa, bestetik. Gertaera biak bertsoen bidez lotuta hasiera emango diote ekitaldiari. Ondoren, udaletxeko plazarainoko bidea kalejiran egingo dute. Plaza nagusiko eszenatokitik hizlariekin, dantzekin eta musikagaz osatutako ekitaldiagaz jarraituko dute. Arratsalderako umeentzako jolasak prestatu dituzte.

DATUAK**BOZKAGUNEAK**

- **Otxandion:** Udaletxe aurreko plazan.
- **Atxondon:** Apatako plazan eta Axpeko plazan.

ORDUA

- 09:00etatik 20:00etara.

GALDERAK

- **Otxandion:** Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?
- **Atxondon:** Euskal Herri independente bateko herritarra izan nahi duzu?

GALDEKETA EGINGO DUTEN HERRI DENAK

- Atxondo, Otxandio, Andoain, Areatza, Beizama, Berango, Erandio, Elantxobe, Galdakao, Getxo, Mundaka, Ibarangelu eta Leioa.

DURANGALDEAN HERRI GALDEKETA EGINA DUTEN HERRIAK

- Abadiño, Elorrio, Durango, Zornotza, eta Zaldibar.



Bozkalekuen inguruan askotariko ekintzak prestatu dituzte Atxondon eta Otxandion.

22 bat lagunek baliatu dute aukera hori. "Bozkatzera joango ez zirela uste genuen herritar batzuk etorri dira eta pozik gaude alde horretatik. Dome-

kan ere antzerakoak gertatzea espero dugu", dio Lopez de Letonak. Atxondon gaur amaituko da aurretiazko bozka emateko aukera: 19:00etatik 21:00etara

udaletxe parean duten lokalean egongo dira. Domekan, berriz, ohiko hauteskundeetako eredua jarraituz, bozkagune bi jarriko dituzte: Apatan eta Axpen.



go, sozialistez beteta zegoen herrialdea.

Bazabiltza jarraitzen hango prozesu subiranista?

Interes handiz. Lagunek eta senideek mezu mordoa bidali dizkidate. Barikuan emozionatu egin nintzen. Hala ere, euskalduna sentitzen naiz gehiago.

155. artikulugaz, ez al da prozesua moteldu?

Jendeak animatuta jarraitzen duela esango nuke. Gertatzen dena da Espainia 'La España Negra' dela. Burdinazko horma batzuk izan dira beti Madrildiko gobernuak, eta euskaldunok badakizue zerbait horretaz. Indarkeriarik barik

guztiaz berba egin zitekeela zioten, eta orain eurek darabilte.

Irakasle izan zinen. Espainiar batzuek adoktrinamendua salatu dute sarritan.

Bada, kontatuko dizut: Bartzelonako ingurune industrialean eman izan ditut eskolak, eta umeek gaztelaniaz hitz egiten zuten euren artean.

Kazetaria zara. Gaur egun sekulako dimentsioa du Kataluniako prozesuak.

Kazetaritzan lan egin nuenean, zubi izatea zen garrantzitsuen. Adibidez, Eginen lan egin nuen, eta nirea egiten saiatzen nintzen. Batzuek, hainbestetan

politikariekin egonda, azkenean politikari direla sinesten dute. LaSextako Antonio Ferreras ikusten dut, adibidez, eta ikaragarria da. Zelakoak esaten dituen! Urduri jartzen naiz.

Madrildik, ostera, TV3 kritikatzan dute, esanez partziala dela. Ikusi al duzu azkenaldi honetan?

Bai. Mugikorrean 324 kanala sartuta dut, 24 orduan TV3 ematen dizuna. Ordenagailuan ere ikusi dezaket. Uste dut telebista nahiko ona dela, eta ez dela partziala, iritzi bat eduki arren. Baina TVE baino partzialagorik ez dago; bere enpresa batzordeak ere salatzen du hori!

MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eitua Industr., 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890

Tronperrl kalea, 1 DURANGO
Tel.: 946 811 737

**Eraikuntzako materiala
Zeramika eta gresa**

UXARTE
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAR
ENKARGUZ
Gutxienez 15
lagunekoa taldeentzako

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

“Madriletak datorren errelato baten arabera, hedabide publikoek arazoaren parte gara”

Kritika jakin batzuen jomugan egon arren, Kataluniako hedabide publikoek inoizko audientzia daturik onenak izan dituzte

A5 Jone Guenetxea

Kataluniako hedabide publikoak kritiken jomugan daude. 155aren aplikazioak azkenean eragingo ez dien arren, tentsio handia bizi dute. Säul Gordillo irrati honen zuzendaria Kataluniako hedabide publikoen lana eta pluraltasuna aldarrikatu ditu. Aktualitatea ziztu bizian aldatuz doa Katalunian. Atzo bertan, Generalitateko bederatzi kontseilarik Espainiako Auzitegi Nazionalan deklaratu zuten. Carmen Lamela epaileak guztiak espetxeratzeko agindua eman zuen, Santi Vila izan ezik. Carles Puigdemontek eta beste lau kontseilarik Belgikan jarraitzen dute, eta epaileak haiek atxilotzeko agindu du.

Kataluniako hedabide publiko sektore zehatz batzuen kritika gogorak jaso dituzue. Zelan sentitzen zarete?

Jomugan jarri gaituztela sentitzen dugu. Madriletak datorren errelato baten arabera, hedabide publikoek arazoaren parte gara. Agitatzailerik gisa markatzen gaituzte, informatzaile beharrez. Azken hilabeteetan errelato hori sumatu dugu kaleratu diren informazioetan eta arduradun politikoaren adierazpenetan. TV3 eta Catalunya Radio 155. artikuluan barneratzeko ahaleginean ere jarrera hori nabaritu dugu, nahiz eta azkenean ez den horrela izan. Hau guztia estrategia baten barne dago. Uste dut jende askok ez duela ulertu Katalunian hedabide publikoek Espainiako gobernuaren menpe dauden hedabide publikoekin alderatuta lan oso ezberdina egiten dutela. Beste hedabide publiko batzuek baino kalitate, pluraltasun, zorrotasun eta objektibotasun estandar altuagoak izateaz gain, TV3 eta Catalunya Radio sinbolo batzuk dira herri honetan hizkuntza eta kultura katalanaren berreskurapenaren alde egindako lanarengatik.

Presioa sentitzen duzue? Mónica Terribas kazetariak, adibidez, kritika gogorak jaso ditu. Presioaz gain, ultren hiru manifestazio jasan ditugu irratiaren atean. Joan zen barikuan sarrerako atea eta kristalak hautsi zizkiguten, eta sartu edo irten ezinik egon ginen ordu-



Säul Gordillo
Calella, 1972
Catalunya Radioko zuzendaria

bete, manifestariak kanpoan zeudelako. Langileei esan diegana da gure jarrera eredu-garria izan behar dela gure lanarekiko ikuspegia ez delako aldatu. Ez dugu autozentsurarik egin. Alderantziz, geroz eta despliege informatibo handiagoak egiten ari gara Katalunian gertatzen ari den guztia kontatzeko, eta horren adibide argia da kontsumo digitalak izan duen igoera. Centro d'Estudis de o'Pinioren inkestaren arabera,

“**Argi dago testuinguru honetan gu ez garela hain erosoak botere zehatz batzuentzat**”

8 puntu igo ditugu katalanek informazioa kontsumitzeko aukeratzeko duten hedabideen preferentziei dagokienez. Beraz, Catalunya Radio eta Catalunya Informació kanal informatibo oso destakatuak dira katalanen artean. Horrek erakuste du ondo ari garela lan egiten, eta eraso hauek ez digutela eragin.

Azken erasoaren aurrean salaketa jarri duzue?

Bai, Mossoetan salaketa jarri dugu eta espero dugu behintzat kalteak eragin zituzten pertsonak identifikatzeko bali izatea.

155aren aplikazioan hedabideak kanpoan gelditu dira azkenean. Gai honen inguruan, zein irakurketa egiten duzue? Politikoki ez naiz posizionatuko. Baina, argi dago testuinguru

honetan gu ez garela hain erosoak botere zehatz batzuentzat. 155a aplikatzea modu bat izan zitekeen Kataluniako errealitatea ikusteko modu bat isilarazteko. Komunikabiderik gehienek modu batean informatzen dute eta posizio zehatz eta errespetagarri bat dute. Bizi dugun garai honetan, Kataluniako hedabide publikoek katean bizi den hori guztia isilarazi ezin duen ikuspegi edo traiera bat dugu.

“**Presioaz gain, ultren hiru manifestazio jasan ditugu irratiaren atean**”

Kritikez gain, babesa ere jaso duzue. Zelan jaso dituzue?

Sentsazio arraroa da. Ematen du gure historiako egoera tentsio eta gogorrena bizi behar izan dugula ikusteko audientziak eta herritarrek ondo baloratzen eta estimatzen gaituztela, eta ikusteko Kataluniako beste hedabideetako profesionalek emandako errekonozimendu eta babesa. Era berean, hedabide guztietako kazetariak eta alderdietako ordezkariak modu diskretuan babesa eman digute 155aren aplikazioaren aurrean.

Kazetaritzaren ikuspuntutik sasoi garrantzitsu batean lan egitea tokatu zaizue. Erredakzioetan adrenalina handia egongo da. Zelan bizi duzue hori eguneroko lanean?

Intentsitate handiagaz. Ematen du orain dela urte batzuk aste batean edo hilabete batean gertatzen zena baino gehiago gertatzen dela egun batean. Testuingurutik atera gabe interpretatu beharreko berbak dira. Hedabideen historian sekula ez dugu hainbeste erreminta eta kanal izan. Aldi berean, sekula ez gara kritikara, presiora eta herritarren erantzunera hain lotuta egon. Era berean, ez dugu inoiz hain intentsitate politiko handirik izan. Apasionantea da.

Informazio eta desinformazio handia al dago? Sare sozialek indar handia hartu dute.

Hedabide tradizionalak ez gara hain garrantzitsuak esaten den sasoian, testuinguru honetan, tesi hori desmuntatu egiten da. Ezohiko egoeretan hedabide trazionalak inoiz baino baliagarriagoak eta beharrezkoagoak gara. Bateragarriak gara sareekin, baina hedabideon aldetik, jerarkizazio eta irizpidea markatzea beharrezkoa da. Zarata eta parte-hartzea handia da eta, ildo horretan, hedabideon lana inoiz baino inportanteagoa da.

Abendurako deitzeoak diren hauteskundeak izango dira irtenbidea?

Ez, hauteskunde hauek momentuko tentsioa jaisteko bali dezaketela uste dut. Baina, auzi politiko-instituzionala ez dut uste hauteskundeekin konponduko denik.

MALLABIA Maialen Zuazubiskar Sute batek Begoña Olaso bizi zen etxea erre zuen irail amaieran. Egoeraren aurrean, Mallabiko bizilagunek ez dute beste aldera begiratu. Ekimen bat baino gehiago jarri dira martxan etxerako materiala batzeko edo ekarpen ekonomikoak egiteko. Esaterako, Elgetzu baserriko labean ogia egingo dute azaroko lau zapatuetan, aurrez enkargatuz gero. Bost eurotan salduko dute, eta lau etxea erretako familiarentzat izango dira. Begoñaren alaba Itsaso Praderak esker oneko berbak ditu laguntzen ari zaizkien denentzat.

Elkartasun keinuek ezbeharrak eramaten laguntzen dute?

Bai, jakina. Ama ezer barik geratu zela ikusita, herritarrek euren gauzak eskaintzen zebiltzala jakin genuen. Azkenean, kontua udaletik mugitu zuten eta bilketarako gune bat jartzea pentsatu zen. Gura zuenak ekarpen ekonomikoa egiteko bidea ere ireki zen. Orain ogiaren ekimen hau dago. Ikaragarria da elkartasun hau guztia.

Batu dituzue herritarrek udal-etxera eramandako gauzak?

Bai, jaso ditugu. Ama udalaren etxe batean bizi da orain, eta hura eraman ditugu. Danetarik jaso dugu. Gauza berdinak askotan errepikatuko ote ziren bel-

“Herritarren partetik laguntzeko borondate hori guztia sentitzeak bete gaitu gehien”

Etxea erre zitzaientetik herritarrek hainbat ekimen ipini dituzte martxan eurei laguntzeko



Itsaso Pradera, Begoñaren alaba, irailaren erretako etxearen aurrean.

dur ginen, baina jendeak galdetu izan digu zer falta zitzaigun; beraz, ez dira asko errepikatu.

Zer sentipen eragiten dizue elkartasun horrek guztiak?

Oso esker oneko gaudete. Ez dakigu gure esker on guztia zelan adierazi ere. Horrelako momentuan jaso dugun laguntza jaso-

tzea itzela da. Laguntza materiala baliotsua da, jakina, baina herritarren partetik laguntzeko borondate hori guztia sentitzeak bete gaitu gehien. Babes hori sentitzea barrura heltzen zaizun zerbait da.

Ama etxean zegoen sua piztu zenean?

Bai, etxean zegoen. Beheko sua dugu, zabaldu eta ixteko atea duen horietakoa. Atea itxita zegoen, baina zeozerk salto egingo zuen edo...

**Segituan konturatu zen? Arris-
kurik igaro zuen?**

Ezkaratzean zegoen. Sasoi batean handik ondoko etxera sar-

bidea zegoen eskailera batzuetatik eta, bat-batean erabaki behar zenez, hara joan zen. Ate horretan horma bat dago gaur egun eta harrapatuta geratu zen, ez atzera eta ez aurrera. Bizilagunei deitu zien, oihuka. Atea bota zuten eta handik irteten ziren. Erredurak zeuzkan, suak baino bertasunak eraginda.

Zu zelan enteratu zinen?

Han inguruko bizilagun batek deitu zidan, nire amaren etxetik kea ikusten zuela esanez. Mugikorrera deitu nion, eta ez zuen hartzen. Telefono finkoan ere ez. Orduan arduratu nintzen. Erreumatik Mallabira bertaratu nintzenerako, ama kanpoan zegoen.

Teilatua kaltetuta ikusten da. Barrua zelan dago?

Ez da ezer geratu. Etxea, kotxea, nire mutil-lagunaren motorra... Edo balio sentimentala zuten gauzak. Aita hil zela hiru urte egingo dira laster, eta haren argazkiak eta gauzak erre ziren. Amak oraindik ez du etxea zelan geratu den ikusi. Ez du harantz begiratu gura. 40 bat urtez bizi izan da bertan.

Baserritarrak haserre OHZ zergaren igoera dela eta

2018an OHZ zerga txikitzea eta putzu septikoen garbiketara laguntzea onartu dituzte urriko plenoan

ABADIÑO A.M.

Landa gunetako bizilagunak OHZaren igoera “bidegabeaz” kezatu ziren urriko plenoan. Herritarrek aretoa bete zuten, eta zergen igoera “beharren arabera” izateko eskatu zuten. Plenoan, 2018ko zergak eta tasak izozteko proposamena

onartu zen, AI eta EAJren aldeko botoekin. Horrez gainera, OHZ zerga txikiagotzea adostu zen. Aldaketa horrek abadiñar askori eragingo die udalaren ustetan. Balio katastrala 100.000tik 180.000 eurora igoko da; zerga tasa %0,32tik %0,25era jaitsiko da kasu horietan.

Bestalde, putzu septikoen garbiketarako ekonomikoki laguntzeko proposamena onartu zen. Udalak garbiketaren %50 ordainduko luke: urtarrilean onartuko da laguntzen deialdia.

EH Bildu, orekaren alde

Koalizioaren ustetan, zergen bilketa progresiboa izan behar litzateke, eta hauek ez lirateke diru iturri hutsa izan behar. “Oreka bilatu behar da, herritarrek ez izateko kaltetuak” adierazi zuen Mikel Urrutia zinegotziak. Abadiñok Bizkaiko zerga tasa altuenetako bat izatea salatu zuten.

Harrera ona izan du Plana azaltzeko batzarrak

IZURTZA J.D.

Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria onartzeko bidean, udalak prozesu berriari hasiera eman zion joan zen asteburuan, herritarren aurrean egindako aurkezpen baten bidez. Aurkezpenak izandako harreragaz gustura daude udal arduradunak. 20 izurtzarrek baino gehiagok bertatik berta-

ra jarraitu zituzten herriguneko pilotalekuan udal ordezkariak emandako azalpenak.

Azalpenen ostean, galdera txanda ireki zuten herritarren zalantzak argitzeko. Batez ere, prozesuari buruzko galderak egin zituzten.

Herritarren aurreko aurkezpenaren ostean, hurrengo urratsa egituratzen hasiko dira. Arloz arloko tailer bereziak egingo dituzte. Bertan, gai arlo konkretuagoei buruzko zenbait lanketa garatuko dituztela jakinarazi du udalak. Oraindik ez dago egunik finkatuta tailer horiek gauzatzeko.



TABIRA

Eguneko zentroa eta Egoitza gerentzia berria

Intxaurren, 27 DURANGO
944 668 852 / 690 622 499



Hartu atsedenalditxo bat

www.cuidamosdetusmayores.com

- Zaintza eta zerbitzua adindunei •
- Prebentzio Sanitario, Psikologiko eta Fisioterapeutiko handia •
- Ile-apainketa eta podologia zerbitzua •
- Aisialdia eta eguneko ibilaldiak •
- Terapia okupazionala •
- Aldi baterako egonaldiak •
- Herriguneko instalazioak ongi komunikatuta •
- Zaintzailearen atseden •
- Lan talde bikaina •

Espainian kondena bete ostean, Aritz Arginzoniz Frantzian epaituko dute

Preso elorriarraren egoera salatzeko, manifestazioa egingo dute hilaren 26an

ELORRIO M. Zuazubiskar
Aritz Arginzonizek Espainian kondena bete ostean, abenduan Frantzian epaituko dutela salatu dute, aste honetan, bere senitarteko eta lagunak. “Lehen aldia da Espainian kondena bete ostean Frantziak euskal preso politiko bat epaituko duena”, adierazi dute.

Arginzoniz 2008an atxilotu zuten eta, ordutik, Espainiako hainbat espetxetan egon da. “Espainiako legeen arabera, Aritzek aspaldi egon behar luke kalean, kondenaren hiru laurdenak beteta ditu eta”, esan dute.

Hala ere, 2016ko otsailean Arginzonizentzat zein bere ingurukoentzat dena aldatu zela ai-

tortu dute senitartekoek. “Aritz Valdemorora eraman zuten eta Europako atxilotze-agindu bat zela-eta, estraditatu egingo zutela jakinarazi zioten”, esan dute.

Arginzonizek bost hilabete Parisen eman zituen, eta 2016ko irailean berriro Espainiara bidali zuten. Orduz geroztik, Huelvako espetxean dago.

Hilabete honetan Parisera eramango dute berriro, abenduaren 18 eta 21 artean epaitzeko. “Hori gutxi balitz, 2018ko otsail hasieran Espainiak Aritz berriro gatibu izan gura du”, esan dute.

Manifestazioa, Elorrion

Espetxe politika hori bukatzeko,



Aritz Arginzonizen senitartekoak, lagunak eta Elorrioko EH Bilduko kideak astelehenero prentsurrekoan.

antolatu dituzten ekimenetan parte hartzeko deia egin diete herritarrei Arginzonizen senitarteko eta lagunak. Azaroaren 26an, *Aritz Arginzoniz sustarreratik atara barik* lemapean manifestazioa egingo dute Elorrion. Manifestazioa, 13:00etan

hasiko da Elorrioko plazan. Abenduaren 9an, Bakegileek Parisera antolatutako martxagaz bat egingo dutela jakitera eman dute. Eta abenduaren 18an Parisera epaiketara Arginzonizi babesa ematera joango direla adierazi dute.

Giza-katea, Durangon

Bestalde, gaixorik dagoen Ibon Iparragirre presoaren egoera salatzeko, bihar, giza-katea egingo dute Durangon. Sarek deitu duen ekimena, Durangoko Anbulategi Zaharretik Andra Mariara izango da, 12:30ean.

Film Sozialak jaialdian parte hartu du Lanbide Heziketa zentroak

600 ikaslek baino gehiagok ikusi dituzte zentroan emandako film laburrak



Zentroko irakasle Jabi Arbeak aipamen berezia jaso zuen Bilboko Azkuna Zentroan egindako bukaera ekitaldian.

IURRETA Aitziber Basauri
Iurreta Lanbide Heziketa zentroak seigarren urtez parte hartu du Bilboko Zinema Ikusezina-ren Film Sozialak nazioarteko jaialdian. Gizarte gaiak lantzen dituzten filmeen 9. lehiaketa izan da aurtengoa, eta Bilboko Azkuna Zentroan egindako sari banaketa ekitaldian zentroko irakaslea den Jabi Arbeak aipamen berezia jaso zuen. Berak bultzatuta parte hartzen du Iurretako ikastetxeak jaialdian.

Lanbide Heziketa zentroan hainbat gai sozial lantzen dituzten 25 film labur proiektatu dituzte aurten, eta 600 ikaslek baino gehiagok ikusi dituzte. Kulturartekotasuna, genero berdintasuna, garapen iraunkorra eta giza eskubideak jorratzen dituzte Film Sozialen jaialdian. Ikastetxeko arduradunek azaldu dutenez, “interesa handiko gai

sozialak dira, ikasleentzat interesgarriak. Eskola orduetan lantzen dira askotan”. Parte hartu duten ikasleei eskerrak eman dizkiete. “Txalotzekoa da izan duten jarrera bikaina, errespetua eta interesa ikusi da beraien aurpegietan”, adierazi dute.

Lanbide Heziketa zentroan hainbat gai sozial lantzen dituzten 25 film labur proiektatu dituzte

KCD gobernuz kanpoko erakundeak antolatutako nazioarteko jaialdiak, besteak beste, gizarteari eragiten dioten arazoak desagerrarazteko konpromisoa hartzeko gai izango diren ikus-entzule kritiko eta gogoeta-tsua sustatzea du helburu.

Ermuan, Euskal Birusa Elkarteak antolatua,

28. SAN MARTIN AZOKA

AZAROAREN 11n LARUNBATA

Baserriko produktuak, abereen erakusketa, artisauak, Luhartzen erromeria, baserritar jantzi argazki lehiaketa, ehun buruko artaldearen jaitsiera Errekaldetik, erakusketak, txerriaren porra, euskal dantzak, babajana, gaiteroak, umeentzako jolasak, 'astobusa', txosna, taloak, saiheski errea...

Euskal
Birusa
Elkartea





Maia, 'Berriak jaio ginen' liburuaren aurkezpena. Elkar

Jon Maia bertsolariak zabalduko du Berbertan hitzaldi zikloa

Platerueneko solasaldian 'Berriak jaio ginen' liburuaz jardungo du Maiak

DURANGO Markel Onaindia Plateruena kultur gune herri-tarrak Berbertan hitzaldi zikloa berreskuratu du, eta udazken honetan hausnarketarako gonbita egingo du hiru hizlari ezagun ekarrita. Jon Maia Soria bertsolariak zabalduko du berbaldi sorta, datorren eguean, azaroaren 9an. 19:00etan hasiko da.

Zumaiako sortzaileak, aurretik argitaratu duen *Berriak jaio ginen* liburuaren aurkeztuko

du solasaldian. Ukitu autobiografiko batez, 80ko eta 90eko hamarkadetako bertsolariaren eraldaketa da abiapuntua, eta handik honainoko eboluzioa

Hilaren 16an Andoni Egaña etorriko da Plateruenera, eta 23an Mari Luz Esteban

ere kontatzen du. Sasoi hartan bertso eskoletako lehen ikasleak plazara irteten hasi ziren, eta kantu inprobisatua erdal-guneetara zabaltzeaz gainera, bestelako adierazpen artistiko batzuekin hartu-emanak sortzen hasi ziren.

Hilaren 16an Andoni Egaña etorriko da Plateruenera, eta 23an Mari Luz Esteban antropologo eta feminista. Kasu horretan, Erika Lagomak elkarriketatuko du.

'Era' prozesuan tailer batzuk prestatu dituzte

EH Bilduk barne eraldaketarako bidea hasita du

DURANGO M.O.

Durango EH Bildu barne eraldaketarako bidean murgilduta dago duela zenbait hiletik hona, *Era* prozesuan, hain zuzen ere. "Birdefinizio kolektibo eta parte-hartzailea" izan gura du, oharrean azaldu dutenez. Barnetik aldatzen hasi gura dute, gero herrian eragiteko. "Hemendik urte batzuetara lortu gura dugun Durango hori izango da zehaztu beharreko

mendi tontorra", adierazi dute. Lehen atal batean, diagnostikoa landu dute, eta orain, tailer zabalak hasiko dituzte.

Azaroaren 8an izango da lehen tailerra, oinarriak eta helmuga zehazteko. Hilaren 15ean antolatetaz jardungo dute. 22an ibilbidea diseinatuko dute. Batzar guztiak Pinondo Etxean izango dira, 18:30etik 21:00etara, eta haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute.

Behargintzako ikasleek JAEDi lagundu diote

Eurek sortutako hainbat produktu eman dituzte

DURANGO M.O.

Durango Behargintza eskutik lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten zenbait gazte ikastaro bat jaso dute, *Txertatu Merkatuan* programaren baitakoa. Materialak berrerabiltzeko tailer batez, hainbat produktu sortu dituzte: mahaitxoak, lanparak,

baldak... Bada, horien zati bat, JAED elkarteari ematea erabaki dute. Joan zen barikuan egin zuten entrega, Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentea bertan zela.

Gazteek Hexakoop fikziozko enpresa sortu dute ikastaroan, eta eskualdeko elkarte zein enpresak ezagutu dituzte.



Ospakizuneko bazkarian bizitako une bat.

Jesuiten Etxea, 10 urtez etorkinei babesa ematen

Baliabiderik bako etorkinak hartzen dituzte

DURANGO M.O.

Errekurtsorik edo baliabiderik ez duten etorkinei harrera eta gizarteratzeko bultzada eskaintzen dizkiete jesuitek, duela hamar urtetik, Durango Jesuiten Etxean. Efemeride hori aprobetxatuta, hainbat lagun elkartu ziren, domekan,

"Merezi du topaketa bat burutzea amets hau burutu duten eta burutzen ari diren lagun askogaz"

lan hori eskertu eta ospatzeko. Proiektuagaz bat egiten duten hainbat lagun eta laguntza jaso duten etorkin ugari ere gehitu ziren ospakizunera. Jesuitek euren komunitatean ematen dute aterpea, eta etxe partikular batzuetan ere bai.

"Merezi du topaketa bat egi-tea amets hau burutu duten eta burutzen ari diren lagun askogaz", adierazi dute Jesuiten Etxeko ordezkariak oharrean.

Bazkari baten bueltan ospatu zuten domekako eguna, eta dantzarien agurra ere jaso zuten, besteak beste.

DIBA
KOOPERATIBA

Durangoaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

hitz liburudenda

#gomendioak

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

IRILDUENTZAT
TESTAMENTUA
François Villon
2016

UME ETA GAZTEENTZAT
FUTBOLEROAK I
Roberto Santiago
2017

MUSIKA
II
Sofía
2017

2017ko edukirik onenaren saria eman dio Tokikomek ANBOTOrri

Martxoaren 31n argitaratutako ale berezia goraipatu du epaimahaiak



Jone Guenetxeak (ANBOTOk zuendaria eta Tokikomeko presidentea) eta Markel Onaindia kazetariak jaso zuten saria.

DURANGALDEA ANBOTO 2017an zehar Euskal Herriko euskarazko hedabideetan argitaratutako edukirik onena ANBOTOrena dela erabaki dute Tokikom sarietako epaimahaiak. Joan zen barikuan egin

zuten sari banaketa ekitaldia Usurbilen (Gipuzkoa), eta Durangaldeko komunikabideko zenbait ordezkariak jaso zuten izendapena. Martxoaren 31n kaleratutako ale berezia da saritutakoa; 1937ko martxoaren

31ko bonbardaketan 80. urtemuga betetzen zen egun horretan, eta ANBOTOk aparteko jantzia zekarren. Azal osoa eskaini zion gaiari, diseinu propioa eginda; barruan, 8 orrialdeko erreportaje eta elkarrizketa sorta batu

zuten. Bonbardaketaren lekuko izan zirenen familietan gaia zelan transmititu den aztertu zen, adibidez. Gregorio Urionaguena eta Martin Barreña lekukoak eta euren senitartekoak izan ziren protagonista. Alean jasotako "iritzi, belaunaldi eta sexu aniztasuna" nabarmendu ditu epaimahaiak.

Sari horrez gainera, azalik onenaren eta bideorik onenaren ataletan ere izendatuta egon da ANBOTO Tokikom sarietan. Lehena, Martxoaren 31ko aleko azalagatik, eta bi-

Bonbardaketaren lekuko izan zirenen familietan gaia zelan transmititu den aztertu zen, adibidez

garrena, Otxandioko bonbardaketaren harira Mondragon Unibertsitateko ikasleekin batera ekoiztutako *Paperak* dokumentalagatik.

Gainerako sariak

Beste hainbat sari ere eman zituzten Usurbilen. Hiruka astekariak azalik onenaren saria jaso zuen, Baleikek ikus-entzuzkorik onenarena eta Erronkariko Gazta markak iragarrik onenarena. Hirukak eta Puntuak beste aipamen berezi bi ere jaso zituzten.

100dik gora lagun espero dituzte martxan

GARAI Markel Onaindia Garaiko Triatloi Taldeak oinez eta bizikletaz ibiltzeko martxak antolatu ditu domeka honetarako, eta 100 lagunetik gora espero dituzte. Trumoitte kultur elkartearen laguntza ere badute. Ibilaldiak doakoak dira, eta www.garaitt.com webgunean aparte, egunean bertan ere eman daiteke izena.

Oinezko ibilbidea 10 kilometrokoa da, familian egiteko modukoa. 09:00etan da irteera. Mendi bizikletako martxa 25 kilometrokoa da, eta 10:00etan hasiko da. Guztira, 1.000 metroko desnibela du.

Hainbat lurpeko zaborrontzi kenduko dituzte

ZALDIBAR A. B.

Iturriotz eta Okaniturri kaleko lurpeko zaborrontziak kenduko ditu udalak eta ohiko edukiontzia jarri; 17.000 euro erabiliko ditu horretarako. "Arrazoi estetikoengatik jarri zituzten lurpeko zaborrontziak bere garaian, baina hainbat arazoa eman dituzte", azaldu du Arantza Baigorri alkateak. Beste alde batetik, San Andresen eta txaleten inguruan dauden zaborrontziak ondo jartzeko, 15.000 euro erabiliko dituzte.

DURANGALDEA M.Z. / M.O.

Nasa Yuwe hizkuntza berreskuratzeko lanean dabilzan lau kolonbiar ANBOTOrren turren egoitzan egon ziren bisitan martitzenean, Durangaldeko euskarazko hedabidearen proiektua bertatik bertara ezagutzeko. Garabide elkarteagaz egindako elkartruke baten harira etorri dira Euskal Herrira, eta elkartruke kide den Andoni Barreñak lagunduta egin zuten egoitzara bisita.

Kolonbiatik Durangaldera, Nasa Yuwe hizkuntza indartzeko asmoz

Berreskurapenean dabilzan lagunak ANBOTOrren proiektua ezagutu dute

kara bultzatzeko egiten den lana azaldu zien.

Bestalde, Aitziber Irigoras Durangoko alkateak ere harreara egin zien. Izan ere, udalak

Garabideren proiektua diruz laguntzen du.

Garabide elkarteak hegoaldeko hemisferioko hizkuntza gutxituen aldeko lana egiten

du, irakasleak formatzen eta elkartrukea lantzen. Esaterako, hemengo kideak ere Hego Amerikan egon dira, euskararen berreskurapenaz berbetan.

Irisgarritasuna hobetuko dute Legañon

BERRIZ M. Z.

Legañon irisgarritasuna bermatzeko aldera, 2017ko aurrekontu parte-hartzaileetan arrapalak jartzea erabaki zuten berriztarrek. Hori horrela, 60.000 euro inguruko aurrekontua duten lanak datozen asteetan hasi eta hiru hilean bukatuta egongo direla jakinarazi du Orlan Isoird alkateak.

Bestalde, aurrekontua handitu behar izan dutela adierazi du alkateak. "Aurrekontu parte-hartzaileetan 40.000 euro bideratu ziren Legañora, baina irisgarritasuna ehuneko ehunetan bermatzeko kopurua handitu behar izan dugu".

Garabide elkarteagaz eginiko elkartruke baten harira etorri dira Euskal Herrira

Saray Vitonas Hezkuntza koordinatzailea, Laidy Pavi Toribio udalerriko gobernadora, Diego Yatacue CECIDIC Institutuko koordinatzailea eta Adolfo Witnas Ramos Wassakkwewesx proiektuko koordinatzailea izan ziren bisitariak. ANBOTOk zuendaria den Jone Guenetxearen eskutik jaso zuten informazioa, eta hedabideak eskualdean eus-



Kolonbiako bisitariak, Jone Guenetxeagaz eta Andoni Barreñagaz, ANBOTOrren egoitzan.



Errota ostatuko gela batean eskaintzen du zerbitzua Durangaldeko Amankomunazgoak.

Etxebakoek urteko gau denetan izango dute zabalik aterpea

Amankomunazgoaren zerbitzura batuko dira Zornotza, Berriz eta Mallabia

ZORNOTZA Joseba Derteano Durangaldeko Amankomunazgoak gaua aterpe batean igarotzeko zerbitzua eskaintzen die etxegabeei. Orain arte neguko hileetara mugatzen zen eskaintza, baina 2018ko otsailetik aurrera, urteko gau guztietan zabalik egongo da, Amankomunazgoa iturriek baieztatu dutenez.

Jaurilaritzako Gizarte Sailaren eskakizunetara egokitu dira horrela. Udalen denek eskaini behar duten zerbitzua da eta Amankomunazgoan antolatu behar da. Horregatik, Amankomunazgoan ez dauden

Zornotza, Mallabia, Berriz eta Ermuako udalek hitzarmena sinatutako dute eskualdeko erakundeagaz. Lea Artibai eta Lea Ibarra eskualdeak ere batu dira proiektura. Abenduaren 1ean ohi den moduan irekiko dute aterpea, eta orain Amankomunazgoan dauden udaletako herritarrei bideratuta egongo da. 2018ko otsailetik aurrera hasiko dira zerbitzua aipatutako nobedadeekin eskaintzen.

Orain arte Errota ostatuan eskaintzen zen. Udalen eta Amankomunazgoaren arteko hitzarmena sinatutakoan, lehaketa publikoa abiatuko dute au-

rrera begirako tokia erabakitzeke. Beti ere Durangon eskainiko dute, horrela hitzartu dutelako alde denek, Amankomunazgotik informatu dutenez.

Zornotzan aho batez hartu zuten erabakia joan zen barrikuko udalbatzarrean. Udalak 13.000 euroko ekarpena egingo du.

Etxegabeei oinarrizko zerbitzuak eskaintzen dizkiete aterpean: jan, lo eta higienerako aukera. Gaueko harrera zerbitzuak bostentzako lekua izango du Durangaldean, baina, neguan, bostentzat barik, hamar lagunentzako lekua egongo da.

Santa Ana auzoa Kaitanagaz lotuko du arrapala batek

ZORNOTZA J.D.

Anbulatorio ingurua urbanizatzeko lanen azken fasea hasi dute, 235.000 euroko aurrekontuagaz. Obrak zati bi ditu. Lehenengoan, San Migel 21 eta Kaitana ingurua urbanizatu eta Kaitana plaza Santa Ana auzoagaz lotuko dute sigi-sagako arrapala baten bidez. Arrapala hori eta ambulatorio inguruko urbanizazio guztia zolatzeko, granitozko baldosa erabiliko dute, eta gune osoan 20 farola jarriko dituzte.

Gurasoak eta seme-alabak euskaraz jolasean

MAÑARIA J.D.

Herriko kaleetan euskararen erabilera sustatzeko helburua du gaur arratsaldean pilotalekuan egingo duten 'Familian euskaraz jolasean' ekimenak. 3 eta 8 urte arteko gaztetxoei eta euren gurasoei bideratuta dago, eta dinamizatzaile batzuen laguntzagaz askotariko ekintzak egingo dituzte. 18:00etatik 19:00etara jarri dute hitzordua. Urtxintxa eskolaren eta Amankomunazgoaren artean antolatutako ekimena da.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU PEREZ

EH Bildu



Erantzukizunez

Kritikatu gaituzte pasa den astean Durangoko hondakin bilketaren eta kale garbiketaren tasa %2,5 igotzearen alde bozkatzegatik. Eta bai, badago zer kritikatu erabaki horretan. Ez da kritikagarria kopuru horretan igotzea tasa, kontuan izanik gaur egun indarrean dagoen kontratua orain dela 12 urte sinatu zela eta guztiz iraungita dagoela. Hala, igoera guztiz beharrezkoa dela esango nuke. Sinatu zenetik hona hainbat auzo berri eraiki dira Durangon. Era berean, garai hartan auzo batzuetan (San Fauston, adibidez) astean soilik bi aldiz garbitzea erabaki zen. Beraz, kontratu berrian auzo berriak garbitzeaz gain, auzo guztietan (azken finean, auzokide guztiek tasa berdinak ordaintzen dituzte) gutxienez 3 bider garbitzea ezarri beharko litzateke.

Horretaz gain, Europako araudia betetzeko, kontratu berrian hondakin guztiak atalka batzuek aukera ezarri behar da, alegia, zaborren atal organikoak ere, eta, horretarako, zaborrontzi berriak ezarri beharko dira. Eta, azkenik, guztiz zaharkituta dagoen makineria eta tresneria berriztu beharko litzateke eta, bide batez, egun batean bai eta hurrengoan ere arazoak ematen dituzten lurpeko zaborrontziak aldatu. Beraz, %2,5eko igoera babestea ez da kritikagarria, are gehiago, labur geratu garela esango nuke.

Kritikagarria dena da, tasa eta kontratuaren kudeaketa udal gobernuaren eskuetan uztea. Hots, kontratua iraungitzera eta gaur egungo egoera negargarrienera ekarri gaituen gobernuaren eskuetan uztea. Eta bai, hori kritikagarria izan daiteke, baina gobernuak ez dugu guk aukeratu, gu erantzukizunez aritzen gara oposizioan ere.

DURANGALDEA ASTEON

Astola aldizkariak kalera aterako dituzte

DURANGO > Zapatuan Astola aldizkaria ezagutu eta erosteko aukera egongo da, Andra Mariko elizpean. Bestalde, Gerediaga elkarteak jakinarazi du Mikel Onandia arte historialariak bisita gidatuak egingo dituela Durangoko aire libreko eskulturak ezagutarazteko. Zapatuan izango dira, 10:00etan eta 12:00etan.

Alpinoren merkatu txikia, hilaren 10 eta 11n

DURANGO > Alpino Tabira Mendizale Taldeak urteroko mendiko materialaren merkatu txikia egingo du azaroaren 10ean eta 11n. Merkatu honetan, mendiaz zerikusia daukan materiala Alpinoko egoitzara eraman eta bertan salgai jartzen du jendeak. Material bilketa azaroaren 7an eta 9an egingo dute.

Azterketa medikoak doan kirolariei Elorrioren

ELORRIO > Elorrioko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiagaz elkarlanean, federatu gabeko eta eskola kirolean ez dabilen kirolariei azterketa medikoak egingo dizkie, doan. Plaza mugatuak dituen azterketak azaroaren 21etik 27ra egingo dituzte kiroldegiaren aurrealdean jarriko den gune mugikor batean.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
astekaria 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

Gazteak ere, amestutako Elorrioren eraikitzen

Gaztetasunak badu xarma berezia, behin joanda sekula itzuliko ez dena. Bere baitan barnebiltzen dira etorkizunarekiko ilusioa eta, nola ez, guztiok maila ezberdinetan bizi izan dugun errebelia puntu bat. Gazteak dira herri honen etorkizuna, eta komeni zaigu gutxina-gutxinaka Elorrioren hobe bat eraikitzeke erremintak beraien eskuetan uztea. Zergatik? Gure ardura delako gazte horien ahalduntzean laguntzea.

Lehen aldiz, 12 eta 20 urte bitarteko gazte eta nerabeen diagnostikoa egin dugu Elorrioren, beraiek beren beharrak eta ahulguneak azalazteko. Betidanik izan da zaila gazteen eta erakunde publikoen arteko harremana, nik neuk ere, gazteagoa nintzenean, udala urrun-oso urrun- ikusten nuen. Hori dela eta, Elorrioko udaletik aurtent-

go aurrekontu parte-hartzaileak gazteengana zuzenduko ditugu. Ekuazioa simplea da: gazteekin egindako diagnostikoa hainbat behar ondorioztatu dira, eta horiek hurrengo urteetan garatuko dugun Ekintza Plan batean barnebildu ditugu. Datorren urtera begira, udal baliabide eta proposamenen bideragarritasunaren arabera, gazteek erabakiko dute zein proiekturi emango dioten lehentasuna, eta guk lehentasun horiek kontuan hartzeko konpromisoa hartuko dugu.

Jakin badakigu diruak ez dituela gazte horien behar guztiak asetuko, diruaz harago, beraien inplikazio eta lana ere ezinbestekoa delako. Baina alternatibak eskainiko dizkiegu, gazteekin komunikazio kanal berriak zabalduz, erabaki guneetara erakarri nahi ditugulako eta gazteekin ere amestutako Elorrioren irudikatzen jarraitu nahi dugulako.



Ainhoa Pedrosa, Esther Ariznabarreta eta Geno Ereñaga | Zaharren egoitza kontzertatuetako zaintzaileak |



“Gure soldata senarraren soldataren gehigarri bat dela esan zigun patronalak”

Zaharren egoitzetako emakume langileek garaipena lortzea posible dela erakutsi dute

> BERBAZ Markel Onaindia
Inguruko babes mezuak idatzita dituzte euren borrokaren ikur izan diren kamiseta berdeetan. Urte eta erdiko greba deialdien ostean, heldu da kamisetak erantzeko ordua, enpresekin akordiora heldu baitira. Aldundiak kontzertatutako egoitzetako zaintzaileak edo gerokultoreak dira, ELAkoak. Durangoko Barandiaran egoitzan lan egiten dute Ereñagak eta Pedrosak, eta Astarloan Ariznabarretak.

Pozik zaudete, ezta?
Geno Ereñaga: Bai. Nekatuta gaude, baina oso pozik.
Ainhoa Pedrosa: Horrela da. Akordioa sinatzeko unea oso hunkigarria izan zen.

Azken urtea luzea izan da.
G.E.: Espero genuena baino luzeago joan da. Emakumeak garelako izan da borroka hau hain luzea, argi daukagun gauza da. Baina, seguruenik, emakumeak garelako ere eutsi dugu hainbeste.

Zergatik duzue iritzi hori?
Esther Ariznabarreta: Zaintzaileen artean gehiago handi bat emakumeak gara. “Nire barrabilengatik, ez duzue hori lortuko”, esan izan digute, hitzez hitz. Uste zuten ez zirela gure erabakiak, sindikatuak manipulazten gintuela. Baina erabakiak batzarretan bozkatuta hartu ditugu. Enpresarien ikuskera duela 40 urtez atzerakoa da. Uste zuten ez geniola eutsiko.

G.E.: Gure soldata senarraren soldataren gehigarri bat dela ere esan izan digute. Gauza umiliagarriak izan dira.

Patronalak zelako jarrera eduki du negoziazioan?
E.G.: Hasieran, ezezko borobila jaso genuen, aurreko hitzarmena murriztu gura zutela esan ziguten. Euren bigarren proposamena hilean 3 euro gehiago ematea zen; hori gutaz barre egitea zen, ezer baino txarra goa zen. Gu umiliatzen saiatu dira. Gainera, zerbitzu minimoak kasik totalak izan dira. Guk hitzarmen duin eta justu bat gura genuen, zaharrei zaintza duin bat eskaini ahal izateko. Hobekuntza asko lortu ditugu, baina oraindik badago zer hobetu ere.
Esther Ariznabarreta: Gerra

bateko lehen bataila irabazi dugu, eta kalean jarraitu behar dugu. Ez dizkigute ratioak borrokatzen utzi, eta hori izango da etorkizuneko gure helburua.
G.E.: Ratioak zaharkituta daude, eta Aldundiak oso tratatu desberdina ematen die bere egoitzei eta kontzertatutakoei. Grebagaz, egoera ikustaraztea lortu dugu. Gainera, zaharren senideak saretzen hasi dira. Hori ere gure garaipen bat da.

Zeintzuk dira hitzarmenerako lortu dituzuen hobekuntzak?
G.E.: Ordutegiei dagokienez, Aldundiko egoitzekin parekatzea lortu dugu, urtean 1.592 ordu-gaz; 1.698 ordu geneuzkan orain

“*Hitzarmen duin eta justu bat gura genuen, zaharrei zaintza duin bat eskaintzeko*”

arte. 140 euroko soldata igoe-
 ra ere badugu, eta domeketako gehigarria 2,70 eurora igo dugu 1,70etik. Lau urteko epean pausoka igoko dira neurriak. Lan istripuetan, aldi baterako ezintasuna %100ean ezarri da.

Hobekuntza horiek zaharren zaintzan ere igarriko dira, ala?
E.A.: Hori itxaroten dugu. Gure baldintzek zerbitzuaren kalitatean eragiten dute.
G.E.: Ordutegi laburragoa edukita, deskantsatuago egongo gara, noski, eta gure lanaren kalitatea hobea izango da. Ez da berdina zazpi eguneko lanaren ostean egun bat edo bi libratzea.

Zelan eragin dizue urtebeteko egoera honek pertsonalki?
Ainhoa Pedrosa: Urte gogorra izan da, gorabehera askokoa. Batzuetan pozak izaten genituen, baina beste batzuetan behea jota geunden. Gainera, galera ekonomiko garrantzitsua eduki dugu.
G.E.: Maila ekonomikoan, emozionalean eta sozialean eragiten dizu. Gorputz eta arima egiten duzu lan. Eskerrak ELAren babesa eduki dugula, eta erre-

sistentzia kutxatik tiratu ahal izan dugu. Ez da soldata bat, baina babes bat bai. Senideei eta ingurukoei eskerrak eman behar dizkiegu, egunero kalean egon garelako, eta egoera hori jasan behar izan dutelako.

E.A.: Hori bai, babes itzela eduki dugu, eta aitortu egin behar da.
G.E.: Hori da. ELAko kide guztiak, elkarretaratzeetan egon diren Durangoko EH Bildu eta Herriaren Eskubideko kideak, zaharren senideak, greba egin ezin baina mobilizazioetara etortzen ziren lankideak, Bilbon beti egon izan den Tasio Erkizia, Ecuador Etxekoak, feministak, Iurretako Anderebide...

Gauzak irabazi daitezkeela erakusten duen borroka bat izan da zuena.
E.A.: Paraxutean salto egitea falta izan zaigu bakarrik [barrere]. Gainera, era baketsuan egin dugu protesta, amorruari eustea kosta zaigun arren.

Gustuko duzue zuen lana?
E.A.: Oso aberasgarria da. Hartu-eman pertsonalak oso inportanteak dira. Euren familia etorri ezin denean zu zaude eurekin. Denek dakite amaiera helitzen dabilela, eta etapa zaila da.
G.E.: Ez ditugu soilik garbitzen; entzun egiten diegu, eurekin negar egin... Zaintza on bat merezi dute. Gaur egun, egoitzak negoziok dira, eta zerbitzu publikoak izan beharko lirarteke.

Alberto Laguna (1990) eta Iker Bilbao (1994) | Eguzkiaren Bila websailaren gidoilaria eta editorea | Zornotza

“Baliabide gutxigaz pelikula bat egin daiteke gaur egun, eta hori oso ondo dago”

Bilboko Seriesland jaialdian euskal websail onenaren saria irabazi dute Eguzkiaren Bila lanagaz



Alemaniara, Hego Koreara eta Estatu Batuetara bidaiatuko dute Lagunak eta Bilbaok datorren urtean.

> BERBAZ Aritz Maldonado
Zenbait sari jaso dituzte Eguzkiaren Bila websailagatik Alberto Laguna eta Iker Bilbao zornotzarrek. Azkena, Bilboko Seriesland jaialdian jaso duten

Euskal websail onena izateagatik jaso dute. Honi esker, nazioartean erakutsi ahal izango dute beraien lana. Espero al zenuten saria?
Iker Bilbao: Ez genuen espero

horrelakorik, baina beti dira ongi etorriak horrelakoak.
Alberto Laguna: Jaialdi hauen helburua websailak nazioartearatzea izan ohi da. Gure kasuan, Serieslandekin anaiturik dau-

den Die Serielan (Alemania), Miami Web Fest (AEB) eta Seoul Web Fest (Hego Korea) bisitatuko ditugu.

Ikus-entzunezko munduan profesionalki ari zarete?

A.L.: Ez, ikasketak iaz amaitu genituen biok. Nik gidoigintza ikasi nuen, Anima eskolan.

I.K.: Nik Euskal Herriko Zinema Eskolan ikasi nuen. Bestelako lan bat irten bitartean, gure proiektuetan ari gara lanean.

A.L.: Oraingoz, Eguzkiaren Bila mugitzen ari gara, eta dirutxo bat irabazi dugu. Gidoilaria izanik, ekoiztetxe handi batean lan egitea gustatuko litzaidake, Espainiako batean edo; halere, gauza gaitz dago.

I.B.: Niri gehiago gustatzen zait zinearen alde sortzailea. Nire ametsa zuzendaria izatea litzateke. Halere, hau ere oso zail ikusten dut. Editore legez lan egitea ere asko gustatuko litzaidake.

Websailak etorkizuna ala oraina dira?

A.L.: Espainian websailak hasi baino ez dira egin. Frantzia, Alemania eta Kanada herrialdeetan, esaterako, erraldoiak dira, beste telesail batzuk balira bezala tratatzen dira. Milioi bat eu-

roko aurrekontua duten websailak ezagutu ditugu. Sare sozialak baino haratago doan fenomeno bat da hau, telebista eta mugikorretako zenbait aplikazioen bidez ikusi daitezke. Harrituta geratu gara festibalean ikusitako askogaz.

I.K.: Azken finean, websail bat egitea aurrekontu baxuko pelikula bat egitea bezalakoa da. Denboraldi batek hamar minutuko zortzi saio izan ohi ditu; guztira, 80 minutuko grabazioa da. Baliabide gutxigaz pelikula bat egin dezakezu, eta hori oso ondo dago.

Asko ikasten da horrelako festibaletan?

I.B.: Bai, ikaragarria da. Eskaintzen diren hitzaldietan asko ikasten da.

A.L.: Sektoreko profesional pilo bategaz hitz egiten duzu. Joerak zeintzuk diren, zeintzuk diren irekitzen diren merkatuak, eta, gainera, harreman ugari egiten duzu. Horrez gainera, hainbat sortzailearen postuak bisitatu ditzakezu, eta asko ikasi daiteke beraiekin hitz egiten.

Baduzue proiekturik esku artean?

I.B.: Pertsonalki, 2d animazioa ikasten hastekoa naiz. Bestalde, gidoi batzuk idatzita ditugu. Hemendik aurrera, ideiak landuko ditugu, ekoizleei saltzeko. Serieak beharrean, ideiak erosten dira orain.

A.L.: Ez da ohikoena, baina iaz, Netflix produktoreak websail bat erosi zuen, festibalean.

Babes ekonomiko bila dabilta bigarren denboraldia ekoizteko

Lehenbiziko denboraldia laburragoa egin behar izan zuten

> MUSIKA A. M.

Lagun artean Youtubeko kanal bat sortuz hasi zena nazioartera iritsi den proiektu bilakatu da. Mangamoreko antolatzaileek jaialdia iragartzeko websail bat egiteko proposamena jaso zuten Bilbaok eta Lagunak urte hasieran, eta buru-belarri jardun dira lanean ordutik. Urtarril eta martxo bitartean, gidioak prestatu zituzten, eta ostean grabaketekin hasi ziren. “Beharbada anbizio gehiegi izan genuen hasieran”, azaldu du Lagunak. Izan ere, zortzi ata-

leko denboraldia egitea zen sortzaileen asmoa. “Ikusi genuen ez genuela garaiz entregatuko, eta hori dela-eta bosgarren atala amaiera ireki batez uztea erabaki genuen”, argudiatu du Bilbaok.

Bigarrenaren bila

Esku artean bestelako proiektuak ere eduki arren, zornotzarrentzat lehentasuna da Eguzkiaren Bila websailaren bigarren denboraldiari ekitea. Horretarako, laguntza ekonomikoa eskatuko diete era-

kundeei. “Eusko Jaurlaritzak 25.000 euroko diru-laguntzak ditu gidioetarako eta ekoizpenerarako. Hori eskatzeko, txosten bat idazten ari gara”, dio Lagunak.

Zero euroko aurrekontua

Lehenbiziko denboraldiko bost atalak babes ekonomikorik gabe grabatzeko, beharrezkoa izan dute inguruko laguntza. Soinu banda, adibidez, kuadrillako batek egin die, eta aktore lanak egiteko, hurbilekoak geratu eduki dituzte.



> MUSIKA Aritz Maldonado
Kontzertu berezia eskainiko du Herri Maite akordeoi taldeak bihar, hilak 4. Ikuslego gazteago bat erakarri nahian folkloretik urrun geratzen diren abestiak prestatu ditu taldeak Jesuitak ikastetxeko elizan eskainiko duten kontzerturako. Game of Thrones edota Bohemian Rhapsody (Queen) bezalako abestiak moldatu ditu akordeoi taldeak. “Historian zehar mota guztietako abestiak jo ditugu, soinu bandak, euskal musika, klasikoa... Oraingo honetan, berriz, publiko gazteago batengana heldu nahi dugu” azaldu du Antonio Nuñez zuzendariak.

Bi urteko egokitze prozesu baten ondoren dator emanaldi hau. Zortzi lagunek joko dute eskusoinua biharko kontzertuan, Antonio Nuñezen gidaritzapean. Akordeoia izan da beti Herri Maite taldearen oinarri nagusia, halere, beti izan dute bestelako musikarien parte hartzea. Biharkoan, Mikel Nuñez (pianoa), Iker Hernandez (bateria) eta Nekane Coello (zeharkako txirula) musikariek lagundu diete.

“Baliabideak aprobetxatu”
Kontzertua Jesuitak ikastetxea-

Herri Maiteren kontzertu berezia publiko gazteagoa erakartzeko

Jesuitak ikastetxeko elizan izango da emanaldia, 19:00etatik aurrera



Herri Maiteko taldekideak, aurreko emanaldi batean.

ko elizan egitea ez da kasualitate taldeko zuzendariaren arabera. Izan ere, kontzertu bat prestatzerakoan kontutan hartzen zeintzuk diren tokiaren baliabideak. “Ikuskizun honek behar duenera bikain moldatzen da Jesuitak”. Bertako akustika egokia izateaz gainera,

bideo irudiak eskainiko dituzte, abestiak janzteko. “Teknologia berriak hain eskura dauden garai hauetan, aprobetxatu egin behar dira”. Horrela, publikoari esperientzia indartsuago bat eskainiko diotela uste du Nuñezek. “Bati baino gehiagori kostako zaio aulkian geldituzte

abestien erritmoarekin”.

Aurrera begira, taldea egonkortzea eta kontzertu gehiago eskaintzea da asmoa. Izan ere, 2018an 30 urte beteko dira Herri Maite jaio zenetik. “Garrantzitsuena urteak betetzen jarraitzea da, are gehiago, gurea bezalako talde batentzako”.

“Zaleengandik hain hurbil egoteak berezi egingo du”

Jardin de la Croixek 360°-ko formatuan joko du



Teknika eta intentsitatea uztartzen ditu Jardin de la Croixek zuzenekoetan.

> MUSIKA A. M.
Berrizko Kultur Etxeak beste kontzertu bat antolatu du 360 graduko formatuarekin. Jardin de la Croix madrildarrek beraien teknika erakutsiko dute zapatuko emanaldian. Laukoak ikusmina handia agertu du zapatuko kontzerturako, batez ere, inoiz ez dutelako horrelako formatu batean jo. “Jaialdiak direla eta, oholtza nahiko handietan aritu gara azken aldian, eta egia esateko gogoia daukagu ikuslegotik hurbil egoteko osterera ere”.

Iazko udazkenean kaleraturiko ‘Circadia’ lanak izan duen harrerarekin oso pozik agertu dira, izan ere, nazioartean bira egiteko aukera eskaini die lan berri honek; Bartzelonako Pri-

mavera Sound eta Bristoleko (EB) ATG jaialdi entzutetsuetan aritu dira, besteak beste.

Post-Matha eta progresiboa uztartzen dute, beti ere rock doinuen baitan. “Konposizioei ukitu interesgarri bat ematen

Primavera Sound eta ATG bezalako jaialdi entzutetsuetan aritu dira ‘Circadia’ diskoaren biran

saiatzen gara beti, entzuleak zer etor daitekeen ez aurreikusteko”. Jaundone bilbotarrak irekiko dute emanaldia, 20:00etan. Sarrerak sei eurotan erosi ahalko dira.

GEURE DURANGALDEA

AINHOA URIEN TELLETXE

Ikaslea



Injustizia poetikoa

Lorez eta jendez bete dira hilerrak asteen. Lurperatuek lo eternalarekin etorriko ei zen amestutako bakea zapuztuta sentitu izango dute, eta kanposantuko harrek ere lur artean gorde beharko zuten, gorpuak xurgatzearen oturuntza une batez ahaztuta, lur gaintetik zetozen pauso-hots eta jendearen joan-etorri etengabeek hala behartuta. Niretzako, hilerrian paseatzea lasaigarria da, zinez; baina egunotan sortzen da halako masa mugimendu bat tokiotan, haietatik urruntzera zaramatzana, hildakoen bakea espantatzearen konplize izan nahi ez bazenu bezala.

Heriotza, hain presente dugun bazter ezezagun hori. Bizirik dauden hilkorrez baino gehiago gogorretzen gara maiz hil diren bizidunak, eta ez batz ez besteaz ahaztu behar ez dugunez hobe dugu batz zein besteaz maizago akordatu. Norbera bere buruaz ere bai, beinke.

Horregatik, jarrai beza joandakoen oroitzapenak, baina egun konkretu batetik harago ere gauzatu dezagun, eutsi diezaiogun duintasun humano pittar bati egun bakarreko kursorileria honen aurrean.

Eta ez ahaztu, era berean, bizidunei ere eskaini loreak; lurretik erauziak, plastikozkoak edo marraztutakoak. Baina batez ere, hitzezkoak, sentimenduzkoak, bihotzezkoak.

Lurretik erauzitako loreak aipatuta, loreak hiltzea hildakoei oparitan emateko, badu zerbait injustizia poetikotik...

Zeruari eroria
Anodino Teatroa

Azaroaren 4an
20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus

San Agustin KULTUR GUINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
OSPAKIZUN BEREZIAK

AZAROAK 3
21:30ean
PUB QUIZ
TRIBIALA INGELESEZ

AZAROAK 4
19:30ean
SAL 150
KONTZERTUA

AZAROAK 5
13:00etan
MIKEL URAKEN
APERITIFA SESSION

DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK



ANBOTO
Whatsapp bidez

**Bidali 'ALTA' 688 635 041
zenbakira whatsapp
bidezko mezua bidalita**



ANBOTO
Telegram bidez

**Bilatzailearen bidez
'ANBOTO' kontuan sartu
eta egin klik 'HASI' botoian**



Iazko talde sarituak, Arriolako emanaldian.

Elorrio ikus-entzunezkoen eta parte hartzearen hiriburu bilakatuko da, hamabigarrenez

17:00etan abiatuko da 24 Ordu Digitalean film labur lehiaketa, Arriolan

> ZINEMA A. M.

Ez dute erronka makala edukitzen Elorrioko 24 Ordu Digitalean lehiaketako parte-hartzaileek. Arriolan bildu, gaiaren berri izan, eta 24 orduren bueltan film bat pentsatu, grabatu eta editatu behar izaten dute; hori gutxi balitz, filmean derri gor erakutsi behar dira antolatzailerik proposaturiko esaldi, objektu eta gai zehatzak.

24 Ordu Digitalean guztiz errotuta dago elorriarren artean, izan ere, hamabigarrenez egingo dute aurten. Iazko edizioan, hamalau taldek parte hartu zuten lehiaketan, eta

horietako zortzi elorriarrek osaturikoak ziren. “Herriko taldeek ohitura dute astebururako plana urtez urte errepikatzea; guretzat oso garrantzitsua da ikus-entzunezko sorkuntzagaz lotutako ekimena herrian finkatuta ikustea”, diote antolatzailerik.

Elorrioren eginiko film horiek 22:00etan hasiko den emanaldian ikusi ahalko dituzte gero. Emanaldiari herriko antzerki talde batek eman ohi dio hasiera.

Lan horrek guztiak badu bere ordain ekonomikoa ere. Hiru finalistek sari ekonomikoa du-

te. Halere, saririk onena sortzen den giroa dela azpimarratu dute antolatzailerik. “Arazo tekniko-

Gaia, objektua eta esatera zaharra ezagutu eta 24 ordu dituzte lehiakideek filma epailei aurkezteko

rik edo badago, bertan konponzeko ahalegina egiten dugu, 24 orduko ahalegina pantaila handian gozatzeko plazerra guztiak izan dezagun”, gaineratu dute.

Iurretako dantzariak, Alemaniako telebistan

Dokumental baterako grabatu dituzte, dantzan

> DANTZA A. M.

Wilhelm von Humboldt intelektual alemaniarrek Euskal Herriatik egin zuen bidaiari buruz egiten ari diren dokumental baterako grabatu dituzte Iurretako dantza taldekoak; grabaketa ZDF telebista kateko talde bat egiten ari da. Zenbait dantza grabatzeaz gainera, Anton Mari Aldekoa-Otalora elkarrizketatu dute.

Euskal Herriatik bidaiaria egin zuen Von Humboldtek, eta bertan bizitakoagaz egunerokoa idatzi zuen. Bertan dio, “liluraturik” geratu zela Dantzari Dantzagaz. “1801ean idatzi zuen von Humboldtek honi buruz; guk kultura honek bizirik jarraitzen duela erakutsi gura dugu dokumentalagaz”, azaldu du Carola Wedel kazetari alemaniarrek.

Bost egunez grabatzen

Eguaztenean iritsi zen lan tal-

dea Euskal Herrira, eta Iurretako grabaketaren ostean, Gernikara joatekoak ziren. “Euskal nazioaren berri eman gura dugu, kultura eta hizkun-

Dokumentala martxoaren amaieran estreinatuko da, 3SAT kate kulturallean; interneten ikusi ahalko da

Von Humboldt intelektuala “liluraturik” geratu zen Iurretako dantzari dantzarekin

tzaren bidez”, azaldu du Wedelek. Dokumentala martxoaren amaieran estreinatuko da, 3SAT kate kulturallean; interneten ikusi ahalko da.



Iurretako dantzariak, grabaketa taldeagaz batera.

Igor Elortza finalerdietara sailkatzeko esperoan, Bastidan bigarren geratuta

Sustrai Colinak irabazi zuen Bastidako kanporaketa, 705,5 puntugaz



Ia 1.000 bertsozaleren aurrean abestu zuen Igor Elortzak Bastidako udal pilotalekuan.

> BERTSOLARITZA M. Z. / A. M.

Bi puntu eta erdi eskaseko aldeagaz gailendu zitzaion Sustrai Colina (705,5) Igor Elortzari (703). Honenbestez, lehenbiziko itzuliko beste saioetan gertatuko denaren zain egon beharko du durangarrak, aurrera egiten duen ala ez jakiteko. Elortza eta Colinagaz batera, Agin Laburu, Jon Martin, Jone Uria eta Nahikari Gabilondo aritu ziren kantuan.

Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehenbiziko finalaurrea izan zen Bastidako (Araba) saioa. Bertako udal pilotalekuan 980 bertsozale elkartu ziren.

Txapelketako lehenbiziko saioa zuen Elortzak eta, batez ere, kartzelako ariketan nabarmendu zen. “Ez duzu gonbidapenik jaso, baina joatea erabaki

duzu” zuen gaia, eta kaleratu duten langilearen azalean jarri zen durangarra.

Lau saioi osatuko dute finalurrekoen lehenbiziko itzulia. Miren Amuriza berrizarrak

Miren Amurizak azaroaren 12an abestuko du, lehenbiziko faseko laugarren finalurrekoan

laugarrenean abestuko du, Durangon. Kanporaketa Landako gunean izango da, azaroaren 12an. Amurizagaz batera, Aitor Mendiluze, Iñaki Apalategi, Jon Maia, Miren Artetxe eta Oihana Iguaran arituko dira kantuan.

Irati Bereinkua Ramos | Durango, 1997 | Edurne Galizia Elexpe | Durango, 1997 | Ibaizabal eskubaloia taldea

“Gaztetxoeren eredu izatea eta gogotsu gabiltzala erakustea garrantzitsua da”

Ibaizabal taldea Euskadiko maila nagusira igotzeko postuan dago azken garaipenaren ostean

> KIROLA Joseba Derteano
Saskibaloia, errugbia eta futbola nagusi diren herrian, eskubaloia helduleku txiki bat du Ibaizabal taldean. Nesketan zein mutiletan adibide bakarra dira. Euskadiko ligan igotzeko borrokan dabiltzan bitartean, zaletasuna sustatzeko lana ere egiten dute gaztetxoak entrenatuz edo euren erreferente izaten saiatuz.

lazko denboraldiko balorazioa egitean, aurten pauso bat aurrera eman eta goialdean ibiltzeko erronka jarri zenuten. Zer baldintza ikusten zenituzten horretarako?

Edurne Galizia: Iaz jokalariek gazteak talde nagusira igo ziren. Beste batzuk unibertsitatean hasi ziren eta ezin ziren bestekin entrenatu. Elkar ezagutzeko eta taldea egiteko denboraldia izan zen. Orain konexio handiagoa dugu eta igotzeko aukerak baditugula ikusten dugu.

Momentuz, helburuak betetzen ari zarete. Lau partidutan hiru garaipen.

Irati Bereinkua: Bai, eta joan zen zapatuko partiduan lortutako garaipena erabakigarria izan da. Irabazi eta hirugarren tokian jarri gara. Beraz, igoerako postuan gaude orain.

E.G.: Euskadin bi multzo daude eta gu bigarrenen gabilta. Lehen fasean hiru igotzen dira multzo nagusira eta, ondoren, bigarren fasea hasten da.

Zelako taldea zarete? Erasokorra, defentsa lanekoa...

I.B.: Talde nahiko txikia gara, garaierari dagokionez behintzat. Beraz, partiduei intentsitatea jartzen eta bizitasunez jokatzen saiatzen gara.

E.G.: Gainera, gurea talde gaztea da. Nagusienak 23 urte ditu. Beste talde askotan jokalariek gazteenak izaten du adin hori. Gure moduko talde gazteak ere badaude, baina gutxi dira.

Zein da zuen egoera eta rola Ibaizabal taldean?

I.B.: Ba, Edurneren rola oso inportantea da, ezkertia delako. Gure taldean zortea dugu ezkerri bi ditugulako. Nik lerroaren kanpoaldean jokatzen dut. Nire lana jokaldiak antolatzea ere bada. Jokaldiak prestatuta ditugu eta nire postuan dagoenari jokaldiak agintzea egokitzen zaio.

Erantzukizun handiko postua da. Zelan daramazu?

I.B.: Talde aurkaria eta unean uneko egoera aztertuta hartu beharreko erabakiak dira. Bartzuetan blokeatu egiten zara, baina ezin duzu zure erantzukizuna utzi. Jokaldi bat edo bestea agintzea inportantea da taldekiek erreferentzia bat izan dezaten. Baina ez nago ni bakarrik. Bi bagara, behintzat. Norbera ideia barik geratzen denean, hegalekoaren eta zentralaren artean aldatzen joaten gara.

Eskubaloia eta zuen taldea oasi bat dira saskibaloia, errugbia eta futbola nagusi diren herrian. Zelan konbentzitzen da neska gazte bat eskubaloira batzeko?

I.B.: Jesuitak ikastetxea da erdigunea. Jokalariek asko handik datoz. Jesuitetan asko jokatu izan da eskubaloian, tradizioa du eta urtero egon da talderen bat. Txikiek nagusiagoak jokatzen ikusten dituzte eta hori oso inportantea da kirol bateko zaletasuna sustatzerako orduan. Eskubaloian ari diren jokalariek belaunaldi gazteagoen eredu bihurtzen dira.

E.G.: Gure taldetik entrenatzaileak irten dira. Jesuitetako gaztetxoak entrenatzen dituzte. Kurutzia ikastolan ere benjaminetako eskubaloia talde bat sortu dute aurten. Kirol berri bat sartu gura zuten eta eskubaloien aldeko apustua egin dute. Zelai bat ere egokitu dute eskubaloian aritzeko. Etorkizunera begirako proiektu baten hasiera da.

E.G.: Gure taldeko hiru Kurutzia gaitzak dabilta entrenatzaile. Apurka-apurka, horrela pizten da zaletasuna.



Irati Bereinkua eta Edurne Galizia lurretako Maiztegi eskolan hasi ziren eskubaloian jokatzen.



Hurrengo partidua domekan jokatuko dute, 10:00etan, Durangoko Tabiran dagoen kantuan.

Zuek sentitzen duzue gaztetxoeren erreferente izan behar duzuela?

I.B.: Bai. Nahiko inportantea da. Eskubaloia ez da kirol indartsua eskualdean eta garrantzitsua da gaztetxoeren eredu izatea eta gogotsu gabiltzala erakustea. Belaunaldi berriek hori sentitu behar dute.

E.G.: Taldekako ohiko kirolez gainera beste batzuk ere badaude erakutsi behar diegu; eta badaudela baliabideak eskubaloian aritzeko, sarritan nahikotxo kostatzen den arren, entrenatzaileak bilatu behar direlako eta abar.

Kadeteen eta gazteen taldeak dituzue. Gazteek senior adina izango dute laster. Durangaldean talde bakarra zaretenez, Ibaizabalen tokirik ez badago zer beste aukera dute?

E.G.: Beste talde bat sortzea oso ona litzateke.

I.B.: Seniorretako talde bi iza-

tea itzela litzateke. Edozelan ere, orain arte ez gara egoera horretan egon. Nagusitzen doazen heinean, jendeak utzi egiten du taldea, beste erantzukizun batzuk dituelako.

E.G.: Egunen batean egoera horretan bagaude, poztuko gara. Nahiago genuke!

Zuek biok lurretako Maiztegi eskolan hasi zineten eskubaloian jokatzen, ezta?

I.B.: Bai, Maiztegi eskolan hasi ginen. Gurasoetako bat eskubaloia entrenatzailea zen, eta beste guraso batzuekin berba egin da, talde bat sortzea erabaki zuten. Gu eta gure klasekide asko batzera animatu ginen. Zortzi bat urte genituen eta 15 bat neska ginen.

E.G.: Dezenteginen, baina DBH-ra pasatzean askok utzi egin zuten. Lauk jarraitu genuen eta, gure adinekoen artean, guk biok bakarrik. Bagenekien Durangoko Jesuitetan talde bat ze-

goena. Toki bietako jokalariek batuta sortu zen gaur egungo Ibaizabal taldea.

Gizonen taldea sortzea posible ikusten duzue?

I.B.: Bilbo inguruan talde pilo bat daude. Hemen, ez.

E.G.: Gaztetxoekin egiten da lana. Esaterako, Kurutzia gaitzak mutil bi dabilta eta lagunak animatzen dituzte edo, gutxienez, entrenatzen ikusten dituzte. Hasiera bat izan daiteke. Jesuitetan ere saiatzen dira. Kontua da umetan talde mistoak direla, neska-mutikoak talde berean aritzen dira, baina banatzeko sasoia heltzen denean mutil gutxi geratzen dira, bat edo bi. Orduan, beste kirol bat aukeratu dute, normalean futbola, indar asko duelako eta euren lagunak ere futbolekin aritzen direlako.

I.B.: Bai, futbolera aldatze hori normalizatuta dagoen joera bat da, zelanbait esanda. Askotan gertatzen da.

Amantegi eta Antxia Euskal Herriko txapeldun esku pilotako modalitaterik zaharrenetarikoa

Lehen aldiz jokatu dute Ander Antxia (1980) eta Egoitz Amantegi (1985) abadiñarrek bote luzean



Ander Antxia eta Egoitz Amantegi pilotariak.

> ESKU PILOTA M.Zuazubiskar
Bote luzea esku pilotaren modalitaterik zaharrenetarikoa da; euskal arbasoek mendietan jokatzeko zuten honetara.

Azken urteotan, Euskadiko pilota federazioa modalitate hau berreskuratzeko lanean ari da, bote luzeko Euskal Herriko Txapelketa antolatuz. Iaz, txapelketako lehen urtean, Bizkaiko selekzioak parte hartu ez zuen arren, aurtengo txapelketan izena eman eta Euskal Herriko txapela irabaztea lortu dute.

Bote luzean bost bosten aurka ibiltzen dira eta Bizkaiko bost pilotarien artean Ander Antxia eta Egoitz Amantegi aritu dira. Abadiñarrek bote luzean aritzea esperientzia "polita" izan dela adierazi dute.

"Hasieran, ulertzeko zaila den modalitatea da, bost bosten aurka aritzen gara eta, joko zuzena eginez, tenisean lez", jakitera eman du Antxiak.

Esku pilotako modalitaterik zaharrenetarikoa frontoi irekietan zein plazetan jokatzeko da, 60

metro luzeko zelai batean. "Zelai erdialdean, sare birtual bat dago, eta sakearen bitartez sare hori ahalik eta urrunen jartzen saiatu behar da pilotaria, zelaia aldatzerakoan ahalik eta toki gutxien edukitzeko defendatzeko", gaineratu du Amantegik.

Partiduz partiduko ikasten
Abadiñoko pilotariak Euskal Herriko Txapelketa izan dute lehenengo torneo bote luzean, eta partiduz partiduko ikasten joan direla adierazi dute. "Be-

rrizen egin genuen lehen entrenamenduan ez nuen jokoa ulertzen, eta haserre itzuli nintzen etxera. Hala ere, azkenerako, gustua ere hartu diot", aitortu du Amantegik.

Bestalde, lortutako txapelketa pozik daudela esan dute pilotariak. "Txukun ibiliko ginen esperantza genuen, gehienok trinketetik gatoz eta. Trinketeak bote luzeagaz zerikusirik ez duen arren, pilota jotzerako orduan erraztasunak izango genituela espero genuen. Hala ere, ez genuen uste Euskal Herriko Txapeldun geldituko ginenik", amaitu du Antxiak.

Munduko txapelketa

Bestalde, Egoitz Amantegi abadiñarrak datozen egunetan One Wall modalitateko Munduko Txapelketa izango du Kolonbian. Amantegi munduko txapeldun izanikoa da modalitate honetan, eta Kolonbiako txapelketara "gogotsu" doala aitortu du. Hala ere, egun bikote "indartsuak" daudela eta hauei irabaztea "zaila" izango dela adierazi du.

Abadiñarraz batera, Amaia Aristegi mallabitarra ere joango da Kolonbiako Munduko Txapelketara.

ADITUAREN TXOKOA

**GARAZI
SAMPEDRO
ARANDO**

Mendi
lasterketak



Emakumeen parte hartzea

Bostongo maratoian Kathrine Switzer indarka kanporatu nahi izan zutenetik 50 urte igaro dira. Ez al da harrigarria gaur egun ulertezina iruditzen zaigun jarrera hura orain dela ez asko gertatu izana?

Zorionez, mende erdi honetan emakume korrikalarien parte hartzea asko igo da, lasterketa laburretan, batez ere. Running USA elkarrearen arabera AEBetan %57 inguru izaten dira emakume korrikalariak. European, Suedia omen da lasterketetan neska korrikalari gehien dituen herrialdea, proba labur askotan gizonezkoen portzentajea gaindituz.

Gurean, errepedeko lasterketako parte-hartzea erakusteko, aipatzekoa da aurtengo Behobiatik Donostia korrika joango direnen bostetik bakarra izango dela emakumea.

Gipuzkoako hiriburutik atera gabe, Hiru Hondartzetako korrikaldian, Behobiako portzentaje hori txiki gelditu zen, helmugaratu ziren guztietatik %34 izan baitziren emakumeak.

Mendi lasterketei dagokienez, %10 baino ez gara izaten parte hartzen dugun emakumeak. Izan liteke mendi eremuak errespetua ematen duelako edo zaila delako 10-15 km baino gutxiagoko mendi-lasterketak aurkitzea. Parte-hartzea bultzatzeko, aukera oso egokia iruditzen zait distantzia laburreko lasterketa mistoak antolatzea. Momentuz, Ezkio eta Bergarako baina ez ditut begi-bistan, lehena azaroaren 25ean eta urteko azken egunean bigarrena. Mendi lasterketak probatzeko aukera bikainak biak.



Amantegi eta Antxia selekzioko kideekin batera.



Joan zen astean jokatu zuten Euskal Herriko bote luzeko finala.

ekin

ekin S. Coop.

Arriagane Industrialdea (Boroa auzoa)

48340 AMOREBIETA

www.ekin.es

ESTETIKA GIDA



Amaia Salazar
Nukleo

Udazkena, aldaketarako sasoi egokia

Azaroa heldu da konturatu orduko, eta gure ilea aldatzen hasi da. Zer egin genezake sasoi berri honetara egokitzeko? Aldaketa bat egiteko aprobeztatuko dugu? Amaia Salazarrek argituko digu.

Udazkenean sartuta gaude honezkeru. Zer estilo dator? Ikastaroetan ikusten ari garena da kontrastea datorrela. Alde batetik, geruza gutxiko melena ertainak etorriko dira, baina, bestetik, aurrealdean labur eta geruza askogaz eta atzean luze.

Bestalde, ilerik gehien jausten den sasoi omen da udazkena. Egia al da?

Bai. Udazkenean eta udaberrian gertatzen da batez ere. Ileberritu behar izaten dugu, arbolek hostoekin egiten duten bezala. Normalean aldi batekoa izaten da, ile horiek berriz hazten dira. Hala ere, erortzeari aurre egiteko, xanpu eta bitamina bereziak daude. Garagardoaren legamia hartzeak ere laguntzen du.

Estilo aldaketa batek pertsonalki lagundu ahal digu?

Bai, noski! Zure izaeraren nortasuna eta ziurtasuna indartzen laguntzen du estilo aldaketa batek. Beraz, horrelako sasoietan, aldaketak ondo etortzen dira!



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

“Taldea aldatzen joaten da, baina familia bat izaten jarraitzen dugu”

Alaia Berganzak hamarkada bat darama talde nagusian, eta igoera fase bi jokatu ditu

> SASKIBALOA Joseba Derteano Tabirako-Baquek bata bestea- ren atzetik lortutako bost garai- penekin hasi du denboraldia. Ez da inongo nobedadea. Azken urteetan goian ibiltzera ohitu dira. Kalitatea eta lana uztar- tzen dituen taldean langileen gremiokoa da Alaia Berganza (Durango, 1990). Talde-jokalaria da, kantxa barruan zein handik kanpora. Argi du bere rola zein den eta apurka taldeko pieza gar- rantzitsu bihurtu da.

Kantxa barruan “borrokalaria” eta kanpoan “taldea animatzea gustuko” duen horietakoa da, bere berbetan. “Gauzak ondo doazenean jokatzeko erraza da, baina okertzen direnean inpor- tantea da animoak igotzen saiatzea. Guk garrantzi handia ematen diogu batek bestea animatze- ari. Une gaitzetan partiduan

sartu zaitzake”, adierazi du pibot durangarrak. Taldearen sendotasunaren gakoa hortxe dago, bere ustez. “Talde batua gara. Urteak joan ahala, jokalaria batzuk joan eta besteak etortzen dira, baina beti familia txiki bat egiten joan gara. Jokalariak,

“Ikaragarri gustatuko litzaidake mailaz igotzea; denboraldi bakoitza aukera berri bat da”

entrenatzaileak... badugu talde izaera hori”, adierazi du.

17 urte zituen debutatu zue- nean. Harrezkero, hamarkada bat joan da eta denetarik bizitzea egokitu zaio, askotan bizipen onak. Igoera fase bi eta



Alaia Berganzak orain 10 urte debutatu zuen talde nagusiagaz; 17 urte zituen orduan.

final four bat jokatu ditu, baina igoerak ihes egin dio orain arte. “Beti geratzen da arantza txiki bat bi igoera fase jokatu dituzunean. Ikaragarri gustatuko litzaidake mailaz igotzea. Baina, tira, denboraldi bakoitza aukera berri bat da”, dio itxaropentsu.

Bere ibilbide luzean bereziki gogoan du orain urte bi azken fa- serako txartela eman zien garai- pena. “Ikusgarria izan zen. Inoiz ez dut horrelakorik bizi izan. Harmailak beteta zeuden eta hutsarteetan zale denak “Tabi,

Tabi’ oihuka entzutea hunkiga- rria izan zen. Umeak, gurasoak, lagunak, aitona-amonak, denak elkarregaz gu animatzen”.

Saria ala obligazioa?

Tabirako-Baque goian ibiltzera ohitu den taldea da. Beraz, sasoi batean saritzat hartzen ziren lorpenak obligazio bihurtu ote den galdetuta, “bai, izan liteke aldaketa hori eman izana”, erant- zun du Berganzak. “Aurreko ur- teetako ibilbidea ikusita, igoera fasea helburu finko moduan du-

gu. Ez sailkatzeak zapore apur bat gazia utziko liguke. Lehiako- rrak gara, irabaztea gustatzen zaigu eta hor egon gura dugu”, segurtatu du.

Asteburuan orbanik bako ibilbideari eusten saiatuko dira. Zapatuan, 19:00etan, Campus Promete taldeak bisitatuko du Durango. “Igoera fasean euren kontra jokatu genuen. Harrez- kero, jokalaria aldatu egin dira, baina talde gogorra izaten jarraitzen du eta ez da erraza izango”, abisatu du.



Gizonetan zein emakumeetan, aurreneko bost sailkatuentzat izan ziren sariak.



200 parte-hartzaile batu ziren krosean.

200 korrikalariren artean, Ramos eta Bereziartua izan dira arinenak

Durangoko Gau Krosak kirola eta jai-giroa uztartu ditu beste behin

> KORRIKA J.D.

200 parte-hartzaile eta beste hainbeste irabazle izan zituen joan zen zapatuan Durangon antolatutako gau krosak. Irabazle sentitzeko baldintza korrika egi- nez gozatzea zen, eta parte-har- tzaileen helmugako irribarreak nahikoa izan ziren baldintza bete zela frogatzeko.

Paul Bereziartuak eta Marisol Ramosek beste guztien gaine- tik egin zuten distira gau kro- sean. Gizonetan Ion Mendiza- bal helmugaratu zen bigarren, Enrique Delgado hirugarren, Markel Arbulu laugarren eta Iñaki Arizmendiarrjeta bosga- rren. Emakumeetan Estibaliz Hernández geratu da bigarren,

Maidar Ramos hirugarren, Ra- luka Ispizua laugarren eta Bero- nika Noya bosgarren.

Proba nagusiaren aurretik, gaztetxoak izan ziren protago- nista. DJ eta animatzaile batek animatuta, dantzan ibili ziren lehenengo. Ondoren, hankak jar- rri zituzten dantzan Alde Zaha- rrean zeharreko lasterketetan.



Umeen lasterketa egin zuten lehenengo eta seniorretakoa ondoren.



LASTER, KALITATEZKO 27 ETXEBIZITZA, GARAJEAK ETA LOKAL KOMERTZIALAK



- TERRAZA HANDIAK
- ESPAZIO ZABALAK
- INTERNETERAKO DOAKO KONEXIOA
- HORMA ARMAIRUAK
- ENERGIA ERAGINKORTASUN HANDIKO ETXEBIZITZAK

94 681 44 95 / 650 397 007

**ERTZAINZAREN BIRIBILGUNEAN,
KURUTZIAGA ONDOAN**

www.promotoraargolabe.com



anboto.iragarki**laburrak**.com

| | |
|------------------|-----------------|
| 1 HIGIEZINAK | 5 IBILGAILUAK |
| 2 TEKNOLOGIA | 6 HARREMANAK |
| 3 LANA/NEGOZIOAK | 7 AISIA/KIROLA |
| 4 DENETARIK | 8 FAMILIA/ETXEA |

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkiaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereizuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Aramalo. Baserri etxea. Aukera asko. 360m2-ko azalera. 140m2 handitu daiteke. 3000m2-ko lur eremua. Eguzkitsua, Urkiolako parke naturalaren ikuspegi zoragarriak. Hiru hiriburuetatik hurbil. Tel.: 669-06 47 88.

Berriz. Etxe ederra herri barruan, kiroldegia eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! Ia amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainugela, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Aukera oso ona! Tel.: 651-34 80 08.

Durango. Durangon, Askatasun Etorbidean etxea salgai. Hiru logela ditu, komuna, sukaldea, egongela, despentsa, balkoia eta ganbara. Tel.: 674-74 36 97.

ERRENTAN EMAN

Berriz. Baserri bateko lehen solairua alokatuko dago Sarrián (Berriz), lur saila barne. Tel.: 655-72 52 52 eta Tel.: 652-75 47 23.

ERRENTAN HARTU

Durango. Pertsona batentzako 1-2 logelako pisu baten bila nabil. Tel.: 695-75 23 43.

GARAJE / TRASTEROAK

ERRENTAN HARTU

Durango. Lonja edo trasteleku bat alokatuko nuke, bakarrik edo konpartituta, bizikletak-eta gordetzeko, Askatasun Etorbideko 12. zenbakitik gertu. Tel.: 660-20 18 30.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

ETXEKO LANAK

Durango. Esperientzia handiko emakumeak plantxa zein etxeko lanak orduka egiteko eskaintzen du bere burua. Tel.: 645 70 68 39.

PERTSONAK ZAINDU

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko langile moduan. Tel.: 631-00 10 83.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Orduka edo lanaldi osoan lan egiteko prest. Tel.: 689-74 23 57.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak

zaintzen, garbiketa lanetan edo sukaldari laguntzaile moduan. Orduka edo lanaldi osoan lan egiteko prest. Baita gauze ere. Tel.: 602-80 83 85.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Kanpoko edo ordukako langile moduan. Esperientzia daukat. Tel.: 632-94 56 81.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Lanaldi osoan, erdian edo orduka. Atarietan, bulegoetan, tabernetan garbitzaile lanak egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Tel.: 631-28 71 29.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Kanpoko edo ordukako langile moduan. Tel.: 631-43 68 37.

Durangaldea. Esperientziadun neska lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketa lanetan. Barneko langile moduan. Tel.: 661- 12 73 28.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Gauze zein orduka lan egiteko prest, kanpoko langile moduan. Tel.: 602-08 96 62.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko edo kanpoko langile moduan. Asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 660-18 46 03.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Orduka zein arratsaldean lan egiteko prest. Tel.: 655-641 421.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Esperientzia daukat eta gauze ere lan egiteko prest nago. Tel.: 698-74 23 57.

Durangaldea. Emakume arduratsua lan bila asteburuetan. Esperientzia eta seriotasuna. Tel.: 631-95 28 27.

Durangaldea. Neska arduratsua, esperientziarekin lan bila dabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Tel.: 632 88 97 96.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, barneko edo kanpoko langile moduan. Asteburuetan lan egiteko prest. Arduratsua naiz eta esperientzia daukat. Tel.: 631-95 28 27.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Gauze ere lan egiteko prest. Tel.: 632-72 29 48.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan, ile-apaintzaile moduan edo zerbitzari moduan. Tel.: 612-26 35 60 (Sandra).

Durangaldea. Emakume arduratsua lan bila nagusiak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Kanpoko, barneko edo ordukako langilea. Tel.: 642-98 60 19.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Tel.: 602-81 24 42.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka, barneko langile edo kanpoko langile moduan. Asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 642- 98 60 19.

Durangaldea. Emakume arduratsua lan bila nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 632-99 90 79.

Durangaldea. Lan bila nabil garbiketan zein pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita ostalaritzako lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea, italieraz hitz egiten dakiena. Tel.: 632-63 24 16.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Gauze zein asteburuetan lan egiteko prest. Erreferentziak ditut, baita eskarmentua ere. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 660-18 46 03.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, garbiketan, zerbitzari lanetan, baserriko lanak egiten edo igeltsero laguntzaile moduan. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Erreferentziak eta eskarmentua ditut. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 602-41 46 70.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen, astelehenetik barikura, goizez. Tel.: 686-90 81 24.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Kanpoko, barneko zein ordukako langile moduan. Tel.: 610-06 70 42.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein ordukako

langile moduan. Tel.: 622-85 73 99.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Lanaldi osoan, lanaldi erdian edo orduka lan egiteko prest nago. Baita garbiketa lanetan ibiltzeko ere. Tel.: 631-20 85 18.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko edo kanpoko langile moduan. Asteburuetan lan egiteko prest. Eskarmentua daukat eta lan egiteko baimena. Tel.: 631-95 28 27

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Kanpoko zein barneko langilea. Tel.: 654-48 88 59.

IRAKASKUNTZA

Durango. LHko ikasleei klase partikularrek emateko prest. Hiru urteko esperientziaduna. Klaseak umeen beharretara diseinatzen ditut. Ikasgaiak: matematika, euskara, gaztelania eta ingelesa. Klaseak ikaslearen etxean, nirean edota liburutegian ematen ditut. Interesa baduzu, jarri harremanetan mesedez: anatu21@gmail.com / 678-29 91 38

Durangaldea. Ama-hizkuntza alemana, filologia alemanean lizentziatua eta ikasketak Ingalaterran egin ditut. Klaseak adin edo maila guztietara egokitzen ditut, baita pertsona bakoitzaren beharretara ere. Elkarrizketa klaseak ere eskaintzen ditut. Esperientzia eta seriotasuna. Tel.: 645-21 02 29.

Durangaldea. Irakasle euskalduna klase partikularrek emateko eta umeak zaintzeko prest. EGA eta ingeles tituluak ditut. Hainbat urteko esperientzia. Tel.: 692-71 66 19.

Durangaldea. Irakaslea lan bila dabil klase partikularrek emateko (ikaslearen etxean). Tel.: 692-77 66 19

LAN ESKAINTZAK

Abadiñoako Abarketeruena tabernan sukaldaria behar da.

Menuan eta kartan esperientzia izatea baloratuko da. Bidali curriculum: abarketeruena@gmail.com helbidera edo deitu 660-18 74 05 zenbakira.

PERTSONAK ZAINDU

Berriz. Arratsaldetan (16:00-20:00) ume bi zaindu eta etxeko lanak egiteko persona baten bila nabil Berrizen. Nahiago 40 urte baino gehiago izatea. Beharrezkoa kotxea izatea. Tel.: 660-97 32 54.

IRAKASKUNTZA

Durangaldea. Ingelesko irakaslea behar da, astean bi egunetan klase partikularrek emateko batxilergo 2. mailako ikasleari. Antonio: 626-11 74 38.

GAINERAKOAK

Iurreta. Ziba elkarteak begiraleak behar ditu eskolaz kanpoko jarduerak emateko: antzez-jolasak, robotika. Interesa izanez gero, igorri curriculum cv@zibaelkaratea.org helbidera.

Zornotza. Berehala lanean hasteko, lan bertikaletan aritzeko langilea behar dugu. lan eremua zornotza eta inguruak. Bidali curriculum produccion@90gradu.com helbidera.

Durangaldea. Sukalde diseinatzaile-saltzailea behar da. Gutxienez 2-3 urteko esperientzia baloratuko da. Tel.: 605-74 01 76.

Denetarik

SALDU / EROSI

Bizikleta tolesgarria salgai.

Dahon markako bizikleta tolesgarri bat saltzen dut. 200 euroren truke. Tel.: 686-44 23 67.

Egurrezko gurdia salgai. Idi parearen egurrezko gurdia salgai. Egoera onean eta azken matrikulazioa 1965ean. 700 euro. Argazkiak whatsapp bidez. Tel.: 633 66 64 92.

Familia - etxea

HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK

SALDU

2 Ume eramateko aulkia. Bi ume eramateko aulkia saltzen da. oso egoera onean dago. Amortiguazioa eta disko-balazta ditu. Aulkiarekin batera ematen dugu: kapazu bat (estreinatu barik), 2 zaku umeak aulkian eramateko eta aulki maclaren bat (bikotza) . Tel.: 635-75 49 62 Posta: zamalloagz@gmail.com.

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



AZAROAREN 9an, 21:30ean,
Ateneon ELORRIO

Pelax & Telmo Trenor

Egiako (Donostia) bi musikari dira Telmo Trenor eta Unai Pelayo. Bakoitza bere aldetik ibili ostean, rock-folk eta musika elektronikoa uztartuko dute proiektu berri honetan.

Musika

:: DURANGO

AZAROAREN 4an

19:00ean, Herri Maite taldearen kontzertua, Jesuitak ikastetxeko elizan.

19:30ean, Sal 150 taldearen kontzertua, Plateruenean

AZAROAREN 5ean

21:00etan, Mikel Uraken, Plateruenean.

19:00etan, Donostiako Orfeoiaren emanaldia, Andra Marian.

:: ELORRIO

AZAROAREN 3an

22:30ean, Unidad Alavesa eta Deiedra taldeen kontzertua, Gaztetxean.

:: BERRIZ

AZAROAREN 4an

20:00etan, Jardin de la Croix taldearen kontzertua, kultur etxean, Tren Geltokiko Musikariak zikloaren barruan.

AZAROAREN 11n

22:00etan, Astralia taldearen kontzertua, kultur etxean. Solstice diskoa aurkeztera dator Bartzelonako hirukotea, Tren Geltokiko Musikariak ziklora.

Erakusketa

:: BERRIZ

AZAROAREN 12ra arte

Sergio Morenoren marrazkiak, Kultur Etxean.

:: DURANGO

AZAROAREN 5era arte

'San Fausto' argazki lehiaketako lanak ikusgai.

AZAROAREN 18ra arte

Jon Gorosperen 'N. Mountains', Kuruzesantu Museoan. Begira jaialdia.

:: ELORRIO

AZAROAREN 17ra arte

Aire libreko margolan lehiaketako lanak erakusgai, Iturrin

Antzerkia

:: BERRIZ

AZAROAREN 3an

18:00etan, 'Max Txikia' antzezlana, 4 urte artekoentzat, Kultur Etxean.

:: DURANGO

AZAROAREN 4an

20:00etan, 'Zeruari eroria' antzezlana, San Agustin kulturgunean.

AZAROAREN 12an

18:00etan, 'Drag-e uraren bila' antzezlana, San Agustin kulturgunean. Logela multimediarren lana, 4 urtetik aurrerakoentzat.

:: ZORNOTZA

AZAROAREN 10ean

20:00etan, 'Jon Braun' antzezlana, Zornotza aretoan. Anita Maravillas herriko taldearen 3 urtetik aurrerakoentzako antzezlaren estreinaldia.

AZAROAREN 11n

18:00etan, 'Jon Braun' antzezlana, Zornotza aretoan.

Jardunaldiak

:: DURANGO

AZAROAREN 7an

18:15ean, 'Sexua, generoa eta orientazio sexuala', Nagusien zentroan. Hizlaria: Unai Goikolea.

AZAROAREN 9ean

19:00etan, Berbertan zikloa Plateruenean: Jon Maia Soria 'Berriak jaio ginen' liburuaz

:: ATXONDO

AZAROAREN 3an

18:30ean, 'Mendia dortsaletik haratago' hitzaldia Oihana Azkorbebeitia mendi korrikalariaren eskutik, Asuntze mendi taldeak antolatuta.

Dantza

:: BERRIZ

Azaroaren 11n

20:00etan, 'Oskara plazara'. Kukai dantza taldearen dantza ikuskizuna.

Ikus-entzun

:: DURANGO

Azaroaren 3an

17:30ean, Marian Gerrickabeitiaren '¿A dónde vamos?' dokumentala San Agustin kulturgunean.

Deialdia

:: DURANGALDEA

Azaroaren 14ra arte

Errigoraren kanpaina berriaren izena emateko epea. www.errigora.eus



ZINEMA

:: BERRIZ KULTUR ETXEA

Morir

• barikua 3: 22:00
• domeka 5: 19:00

:: DURANGO ZUGAZA

American Assassin

• barikua 3: 19:30-22:00
• zapatua 4: 19:30-22:30
• domeka 5: 18:45-21:30
• astelehena 6: 18:30-21:00
• martitzena 7: 20:00
• eguaztena 8: 20:00

La llamada

• barikua 3: 19:30
• zapatua 4: 19:30
• domeka 5: 18:45
• astelehena 6: 18:30
• martitzena 7: 20:00
• eguaztena 8: 20:00

Handia

• zapatua 4: 17:00-22:30
• domeka 5: 21:00
• astelehena 6: 18:30-21:00
• martitzena 7: 20:00

Thor. Ragnarok

• Barikua 3: 22:00
• Zapatua 4: 16:30-19:30
• Domeka 5: 17:00

El secreto de Marrowbone

• Barikua 3: 22:00
• Zapatua 4: 22:30
• Domeka 5: 20:00
• Astelehena 6: 21:00

:: ELORRIO ARRIOLA

Blade Runner 2049

• Domeka 5: 20:00
• astelehena 6: 20:00

:: ZORNOTZA ARETOA

El secreto de Marrowbone

• zapatua 4: 19:30-22:00
• domeka 5: 20:00
• astelehena 6: 20:15

Chavela

• martitzena 7: 20:15

Azaroaren 10ean, 22:00etan, Plateruenean

Polock + Sei Urte

Sei Urte talde berrizarrak 20 urte bete ditu aurten, eta ez dago ospatzeko modu hoberik taula gainean baino. Durangon eskainiko dute kontzertuetako bat, hurrengo barikuan. Gainera, abesti berria ere badakarte esku artean, Morgan taldeko abeslariaren partaidetzagaz. Euegaz batera, Polock talde valentziarra egongo da Plateruenean.





> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztzeneko 14:00ak arteko epea



> Zorixonak gure etxeko saparruei! 5 urte eta urtebete! Ondo ondo pasau eta muxu pillo bat aitatxo eta amatxon partez.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Helene (693. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



> Zorionak, **Uxue!** Bihar 11 urte egingo dozuz eta! Mosu handi-handi bat, laztana. Ondo pasa!



> Zorionak, **Julen**, zure 5. urtebetzean. Muxu potolo bat aitatxo, amatxo ta Araian partez. Jarraitu beti bezain alai eta zoriontsu!



> Zorionak, **June**, oso ondo pasatu zure urtebetetze festan eta opari asko eduki ditzazula osaba Yosua eta Carmenen partez.



> Azaroaren 7an **Garazik** 6 urte beteko ditu eta **Aiur**rek 5. Eta euren amama **Txarok** 65 bete zituen urriaren 29an. Zorionak etxekuen partez! Patxo potolo bat!



> Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat.



> **Bidartek** zortzi urte eder bete dauz asteen. Zorionak guraso, Izei anaia eta Bargundiako familia osoaren partez; Aupa mutil.

> ESKELA

Mertxe Bustinza Azkuna
Izoko

zuri eskerrak jantzi genduzan gure lehenengo oinetakoak urteetan gordeko doguz alkarregaz bizi izandakoak

— Zure lobak

> BOTIKAK

- BARIKUA, 3 · 09:00-09:00**
- Gaztelumendi**
J.A. Abasolo 2 - Durango
- Guarrochena, Lide**
Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
- Sanchez, Miren Itziar**
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño
- Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza
- Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
- ZAPATUA, 4 · 09:00-09:00**
- Etxebarria**
Montevideo etorb. 2 - Durango
- Guarrochena, Lide**
Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-13:30
- Gaztelumendi**
J.A. Abasolo 2 - Durango
- Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango
- Navarro**
Artekalea 6 - Durango
- Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango
- De Diego**
Intxaurren 22. - Durango
- Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango
- Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango
- Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango
- Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz
- Larrañaga-Balentiaga**
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio
- Eguren, Isabel**
Trañabarren 15 - Abadiño
- Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza
- Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza
- Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza
09:00-14:00
- Iragoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
09:00-22:00
- Sanchez, Miren Itziar**
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño
- Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
- DOMEKA, 5 · 09:00-09:00**
- Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango

- Guarrochena, Lide**
Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
- Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
- ASTELEHENA, 6 · 09:00-09:00**
- Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango
- Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
- Sanchez, Miren Itziar**
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño
- Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
- Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza
- MARTITZENA, 7 · 09:00-09:00**
- Mugica**
Andra Maria 9 - Durango
- Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
- Sanchez, Miren Itziar**
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño
- Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
- Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza
- EGUAZTENA, 8 · 09:00-09:00**
- Iragoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
- Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
- Sanchez, Miren Itziar**
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño
- Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
- Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza
- EGUENA, 9 · 09:00-09:00**
- Navarro**
Artekalea 6 - Durango
- Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
- Sanchez, Miren Itziar**
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño
- Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza)

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.
Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.
Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.
Pertsonalizatu, zure herria aukeratu.

DESKARGATU DOAN!



“Erabat liluratu ninduen Shangaik, eta bertan maitemindu nintzen Asiagaz”

Txinara lehenengoz doazenei nola moldatu azaltzeko, ‘elviajerochino.es’ bloga ipini du martxan

> AKUILUA Aitziber Basauri
Enpresa-zuzendaritzako master bat egiteko beka batez gain zen Txinara Matxalen Palacio. Tianjingo Unibertsitate Teknologikoan urtebete egin zuen ikasten, eta badira hiru urte han bizi dela. Asiak maiteminduta dauka, eta Txina ezagutzen laguntzeko bloga sortu du: ‘elviajerochino.es’

Zer du berezia Txinak?
Gizarte oso dinamikoa da. Urte gutxitan asko egin dute



aurrera, eta tradizioa eta modernitatea uztartzen jakin dute.

Aurretik ere egona zinen Shangain, bi hilabetez.

Bai. Unibertsitateko hirugarren urtean proiektu bat garatu genuen han, eta erabat liluratu ninduen Shangaik; bertan maitemindu nintzen Asiagaz. New Yorken modukoa da hiria, baina askoz modernoagoa eta erakargarriagoa.

Zertan da desberdina txinatar gizartea gureagaz alderatuta?

Txinan dena da konplexua. Hizkuntza ondo jakitea zaila da guretzat, burokrazia oso astuna da eta euren ohiturak oso desberdinak dira. Erabat galduta egon

zaitezke Txinan lehen hartueman horretan: janaria, ohiturak, hizkuntza... gauzarik errazena ere zailak dira.

Oso desberdinak gara txinatarrak eta euskaldunak?

Berdintsuak gara. Txinatarrak, euskaldunak lez, oso itxiak dira harremanetarako. Euskal Herrian kuadrilla batean sartzea ez da batere erraza; horretan euskaldunon antzekoak dira, baina, hori gaituzte lortuz gero, bizi osorako lagunak dira txinatarrak.

Gutziz integratu zara zu txinatar gizartean. Gustura zaude?

Txinan ditudan lagunek esaten didate, itxura kenduz gero, gainontzekoan beraiek besteko txinatarra naizela. Asko maite dudana herrialdea da eta oso integratuta nago. Hemengo kuadrilan hainbat txinatar daude.

Hizkuntza ondo jakitea lortu duzu?

Hitz egitea ez da txarrena, idaztea baizik. Kontuan hartu behar da 3.000 karaktere dituela txinera. Dena den, datorren urteari begira nire buruari jarri diodan erronka edo helburua da txinera idatzitako blog bat kaleratzea.

Txina ezagutzeko bloga duzu: ‘elviajerochino.es’.

Zein da helburua?

Txinara joan gura duenak jakin behar du han bi-

daiatzea ez dela gauza erraza. Oso gutxiak dakite ingeleza edo beste hizkuntzaren bat, eta metroa edo bestelako garraiobide bat hartzea, adibidez, oso zaila da. Azalpen guztiak txinera daude eta asko zailtzen du herrialdean mugitzea. Inork ez digu lagunduko, ez digute-eta ulertzen. Horretan guztian lagundu gura du blogak.

Turistari ez ezik negozio munduari zuzenduta ere badago.

Txinara etorri gura duten edo bertan dauden enpresak ditut helburu. Izan ere, burokrazia oso astuna da Txinan, ohiturak oso desberdinak dira eta ez da erraza epe laburrean helburuak lortzea. Enpresei pauso horiek ematen laguntzen diet. Nire proiektu propioa garatzen ari naiz orain, eta lehenengo bezeroekin ari naiz lanean. Costa Ricako enpresa bantentzat dihardut orain eta Medikuntza Azoka batean gaude.

Tradizioak eta modernitateak bat egiten dute Txinan?

Bai. Teknologian oso aurreratuta daude. Adibidez, telefonoan dugun Wechat aplikazioaren bidez, edozein ordainketa egin daiteke. Treneko tiketak, jakiak edo zineko sarrera erosi daitezke. Kreditu txartel baten funtzioa du.

Zenbat egun behar ditugu hura ikusteko?

Txina oso handia da eta egun asko gordez gero, askoz hobeto. Baina, gutxienez, hamar egun behar dira lehen bidaia bat egiteko, eta seguruenik ez da izango egingo duzuen bakarra.

Ekin izateko, ekiteko izan

Barriei jarraika, azken aste honetan Durango, Bartzelona, Brusela, Quebec, New York... eta beste hainbat leku bisitatu ditugu, bai zuek bai nik, ziur nago. 168 ordu baino gutxiagoan gertatu jaku hori guztia. Bidaia global horretan, tarteka gurera, Durangaldera, buelta ere egin izana espero dot; egiteko, eragiteko.

Munduaren handi-zabal horretan anonimoak garela uste dogu, eta ez da horrela. Bakoi-tzak egin daiketan ekarpena bakarra da, ordezkia ezina. Pertsona lez gurean, eta Herri lez munduan, egiten ez dogun ekarpena ezin dau beste inork egin. Eta egin ezean, sortuko dan emoitza beste bat izango da, desberdina, bestelakoa. Beste gizarte bat, beste Durangalde bat, beste mundu bat. Gure eguneroko ekintza da, aldarriez haratago, herrigintzarako ekarpen eraginkorra. Anbototik, Quebecetik, Durangotik, Gasteiztik.

Izan ere, munduko hiritarrek garena sarritan errepi-katzen dan arren, munduan garenetik ibiltzen gara. Garen hori giza-kontestu baten eraiki da, komunitate baten, nahitaez. Ezin da norbanakoa izan komunitaterik gabe; komunitate bateko ezaugarriekin emoten da beti norbanakoa. Eta komunitatearen oinarrizko ezaugarriren bat baldin badago, hizkuntza izaten da hori. Komunitate hori, euskal gizartea dana aitortzen dogunok, euskara daukagu. Baita alkar-bizitza antolatzeke modu bereizgarri bat ere, alkartasunetik, ekin-tzatik, aniztasunetik, lanetik, bardintasunetik. Azken finean, pertsona edota Herri lez, inor izango bagara, gure ekintzan izlatzen dan nortasun bat eraiki dogulako izango da.

Bodegas *Launa*
Arabar Errioxa

info@bodegaslauna.com / Tel.: 946 824 108
www.bodegaslauna.com

2017
PEÑIN GIDA
93 puntu

Gidako Errioxako
kriantzarik onena

